

BIZKAIA 21

EGITASMOA

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ESTRATEGIA
GARAPEN IRAUNKORRERAKO**

AURKIBIDEA

| | | |
|-----------|---|-----------|
| 1. | Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Egitasmorako sarrera | 3 |
| 1.1 | Testuingurua | 3 |
| 1.2 | Bizkaia 21 Egitasmoaren helburua | 4 |
| 1.3 | Irismena | 5 |
| 2. | Bizkaia 21 Egitasmoa diseinetako prozesua | 7 |
| 2.1 | Eztabaidarako proposamena | 7 |
| 3. | Bizkaia 21 Egitasmoaren printzipioak..... | 10 |
| 3.1 | 1. PRINTZIPIOA - Ekonomiaren, ingurumenaren, gizartearen eta kulturearen arloan kontuan euki beharreko alderdiak, erabagiak hartzeko orduan | 10 |
| 3.2 | 2. PRINTZIPIOA - Belaunaldi arteko ekidadea | 10 |
| 3.3 | 3. PRINTZIPIOA - Oinarrizko premiei erantzuteko, txirotasunaren arazoari aurre egiteko eta belaunaldi barruko ekidadea sustatzeko prozesua..... | 10 |
| 3.4 | 4. PRINTZIPIOA - Gobernantza egokia eta partaidetza | 11 |
| 3.5 | 5. PRINTZIPIOA - Nortasun kulturalaren sustapena | 11 |
| 3.6 | 6. PRINTZIPIOA - Erabagiak hartzeko zeharkakotasuna | 11 |
| 4. | Konpromisotik ekintzara | 12 |
| 4.1 | Sarrera | 12 |
| 4.2 | Egiturea..... | 12 |
| 4.3 | Aalborgeko konpromisoak eta lerro estrategikoak | 14 |
| 4.3.1 | 1. KONPROMISOA - Gobernu-erak..... | 14 |
| 4.3.2 | 2. KONPROMISOA - Iraunkortasuneranzko kudeaketa..... | 19 |
| 4.3.3 | 3. KONPROMISOA - Danon ondasun naturalak..... | 26 |
| 4.3.4 | 4. KONPROMISOA - Kontsumo eta bizimodu arduratsuak | 33 |
| 4.3.5 | 5. KONPROMISOA - Urigintzako plangintza eta diseinua | 46 |
| 4.3.6 | 6. KONPROMISOA - Mobikortasun hobe eta zirkulazioaren murrizketa 50 | |
| 4.3.7 | 7. KONPROMISOA - Osasunerako toki-ekintza | 54 |
| 4.3.8 | 8. KONPROMISOA - Tokian tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra..... | 61 |
| 4.3.9 | 9. KONPROMISOA - Bardintasuna eta justizia soziala..... | 67 |
| 4.3.10 | 10. KONPROMISOA - Tokian tokikotik orokortasunera | 83 |
| 5. | Eginkizunak atontzeko proposamena..... | 87 |
| 6. | I. eranskina. Lerro estrategikoen eta helburuen laburpen-taulea. | 90 |

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Egitasmorako sarrera

1.1 Testuingurua

“Garapen iraunkorra sektore eta politika guztien helburu nagusia izan beharko litzateke”. Garapen Iraunkorraren Estrategia Europarra¹ sendoa da erabat, eta bat dator Europako Erkidegoaren Ituneko² 6. artikuluan eta Europako Konstituzinorako proiektuko II.97.³ eta III.119.⁴ artikuluetan xedatutakoagaz. Halanda ze, ikuspegi barria hartu beharra dago kontuan, politikak egiteko orduan.

Gautengeko Adierazpena⁵ borondatez atxiki ostean, Garapen Iraunkorrerako Eskualde Gobernuen Sarean (NRG4SDn) sartu zan Euskadi. Sareak, hain zuzen be, gobernu-maila guztietan behar egin gura dau garapen iraunkorraren alde, eta Bizkaiko Foru Aldundiak horrexeri erantzun gura deutso Bizkaia 21 Egitasmoaren bitartez.

Aspalditik, erakundeak arlokako politikak garatzen dauz, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloko alderdiak jorratzeko. Edozelan be, iraunkortasunaren giltzarritik, lotura eta koordinazio handiagoa jadetsi beharra dago politika horreen artean. Esperientziak egiaztatu egiten dau politika bateko helburuak beteteko moduko ekintzen ondorioz sarritan ez dagoana beste politika batzuetan aurrera egiterik.

Aldundiak garapen iraunkorraren alde egindako konpromisoa ez da barria. Holan, bada, Ingurumenerako Giza Eskubideari buruzko Bizkaiko Adierazpena (1999) atxiki ostean, aldundiak Ingurumen Sailaren bidez aldarrikatu eban jentaurrean Hannoverreko Deia (2000) babesten ebala, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak konbidau ebazan dei hori berresten. Era berean, Aalborgeko Adierazpena (1994) eta Lisboako Gutuna (1996) be babestu ebazan. Orain dala gitxi, “Etorkizunerako inspirazioa” Aalborg+10 Adierazpenagaz (2004) bat egin dau, eta bertan ekintzarako jasoten diran 10 konpromisoak hartu dauz bere gain.

Aldundiaren eskumen-esparrua errespetauta, agiri honek egia bihurtzen dau Euskadik Iraunkortasunaren alde daukan Konpromisoa⁶, bai eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren⁷ arabera iraunkortasunerantz aurrera egiteko beharrezkoak diran baldintzak be.

¹ Europako Kontseiluak onartu eban 2001eko bagilaren 15ean eta 16an Gotenburgon egindako Goi Batzarrean, Batzordeak proposatu ostean [COM (2001) 264].

² 3. artikuluen arabera, Europako Erkidegoko politikak eta ekintzak azaldu eta egiteko orduan, ingurumena babesteko eskakizunak hartu beharko dira kontuan, garapen iraunkorra sustatzeko asmotan.

³ Garapen iraunkorraren printzipioaren arabera, Europako Batasunaren politikek ahal danik eta gehien babestuko dabe ingurumena, eta bere kalidadea hobetuko dabe.

⁴ Ingurumena babesteko eskakizunak oso kontuan hartu beharko dira, zati honetan jasotako politikak eta ekintzak azaldu eta betearazoteko orduan. Izan be, garapen iraunkorra sustatzea eukiko dabe helburu nagusi.

⁵ 2002ko irailaren 3an onartu zan Johannesburgeko Goi Batzarrean.

⁶ 2001eko urtarrilaren 22an onartu zan Bilbon.

⁷ Eusko Jaurilaritzak 2002ko bagilaren 4an onartu eban.

Aldi berean, Garapen Iraunkorraren Estrategia Europarrak (Lisboako Estrategia⁸ kontuan hartuta) eta Ingurumeneko VI. Ekintza Egitasmo Bateratuak⁹ proposatutako erronka handiak landu gura dauz zehatz-mehatz.

Europaren eta nazinoarteko erakundeen joeraren arabera, agiri honek gidaria izan gura dau, garapen iraunkorraren kontzeptua aldundiak ekonomiaren, gizartearen, ingurumenaren eta kulturearen arloan egindako jarduketan barruratzeko prozesuan. Horrezaz gainera, mundu guztiak onartu egin dau gizarte zein lurralde arloko kohesinoa, hazkuntza ekonomikoa eta ingurumenaren babesa eskutik helduta joango dirala epe luzeari begira.

1.2 Bizkaia 21 Egitasmoaren helburua

Agiri honek orientazinoa eskeini gura deutse aldundiko sailei, euren eskumen eta jarduketa eremuetan iraunkortasunaren erispideak kontuan hartu dagiezan. Holan, bada, foru-erakundeak gaur egungo garapen-eredua barriro bideratzeko laguntza emongo dau, bihar-eguneko belaunaldiek euren premiei aurre egiteko daukien gaitasunari kalterik egin barik oraingo premiei aurre egiteko asmotan.

Zehatz-mehatz esanda, honako honeek dira Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Egitasmoaren **helburuak**:

- Aldundiaren jarduketari eta garapen iraunkorrari buruzko kide ugariako hausnarketa bultzatzeko moduko lehenengo osogaia ezartea.
- Aldundiaren jarduketan iraunkortasunaren printzipioak kontuan hartzeko lerro estrategikoak zehaztea.
- Aldundiko sail guztientzako iraunkortasun-helburu bereziak eta hartutako konpromisoen jarraipena egiteko kudeaketa-adierazleak zehaztea.
- Diziiplina arteko administrazio-jarduketa sustatzea, lurraldeko garapen iraunkorrean eragin handia daukien arloak koordinetako.
- Foru-administrazioan bertan, partaidetzan oinarritutako kulturea bultzatzea, arlokako politikan iraunkortasunaren printzipioak kontuan hartzen dauzen antolamendu-sistemearen bidez.

⁸ Europako Kontseiluak 2000ko martian onartu eban Lisboako Goi Batzarrean.

⁹ Ingurumeneko Seigarren Ekintza Egitasmo Bateratua ezarteko asmotan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko garagarriaren 22an hartutako 1600/2002/EE ERABAGIA.

Agiri hau aurrerapauso handia da, Bizkaiko garapen-eredua bideratzeko orduan, baina ez da behin betikoa. Garapen iraunkorreranzko bidea prozesua danez, Bizkaia 21 Egitasmoa behar baizen malgua izan beharko da, eten barik aldatzen diran inguruabarretara egokitzeko. Hori dala eta, agirian jasotako **printzipioak** eta **konpromisoak** (3. eta 4. puntuetakoak, hurrenez hurren) erreferentziako osogaiak izan behar dira eta ezin dira inondik inora aldatu. Halanda be, aurrekoak zehazten dabezan **lerro estrategikoei** jagokenez, erdietsitako emoitzen jarraipena eta ebaluazinoa egindakoa jakingo dogu aldatu egin behar diran ala ez, jazotako desbideraketan edo jadetsitako lorpenak kontuan hartuta.

1.3 Irismena

Garapen iraunkorraren kontzeptua administrazinoko jarduketa-arlo guztietan kontuan hartu behar danez, Bizkaia 21 Egitasmoak Bizkaiko Foru Aldundiko sail eta egitura guztietan eukiko dau eragina.

Agiri honetan jasotako lerro estrategikoen iraunkortasun-erispideetan, ingurumenaren, gizartearen, ekonomiaren eta kulturearen arloan kontuan euki beharreko alderdiak aitatzen dira, eta aldundiko sail guztiek aintzat hartu beharko dabez euren jarduketak garatzeko orduan. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunari begira onartutako printzipioak be hartu beharko dira kontuan.

Edozelan be, helburua ez da gaur egungo arazoei aurre egiteko urtenbide guztiak jorratzea. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak egindako agiria danez, lehendik dagoan administrazino-egituran oinarrituta dago, baita erakundeak daukazan eskumenetan be, eta horixe bera da garrantzitsuena.

Hori esanda, egia da atal batzuetan administrazino batenak baino gehiagorenak diran eskumen-esparruak aitatzen dirana. Batetik, koordinazinoa sustatzen da euskal autonomia-administrazinoagaz. Bestetik, udal-administrazinoari jagokonez, jarduketa batzuk gomendatzen dira, tokian tokiko jarduketetan iraunkortasunaren erispideak barruratzeko edo jarduketok bideratzeko moduko agiriak eta gidak egiteko, beti be eskumenak errespetau egin behar dirala kontuan hartuta.

Zeozelan esateko, agiri honen edukiak zeharkako eragina eukiko leuke Bizkaiko biztanle guztietan eta lurralde osoan, egiturazko neurrien bidez edo zerbitzugintza publikoaren bidez edo kontzientzietako zein sentsibilizetako kanpainen bidez.

Agiria 2010. urtera arte egongo da indarrean, hurrengo legealdiaren amaieraren aurreko urtera arte, hain zuzen be. Horrezaz gainera, Uri eta Herri Iraunkorren Europako IV. Batzarrean (Aalborg+10en) onartutako estrategiak berak be urte horretan berrikusiko dauz ontzat emondako

konpromisoen egoerea eta bilakaera. Izan be, zentzuzko epea hartu da kontuan, epe laburraren eta ertainaren artekoa, alegia. Holan, bada, denpora nahikoa eukiko dogu, erispideak gitxi-gitxika ezarri ahal izateko. Horrezaz gainera, Bizkaia 21 Egitasmoa ezarteko prozesuaren jarraipena eta ebaluazinoa egin beharko dira, aldaketaren bat egin behar dan jakiteko.

Bizkaia 21 Egitasmoa Aalborg+10eko Konpromisoei emondako erantzun zehatza danez, euren inguruan egituratuta dago. Bertan, gainera, 30 lerro estrategiko zehaztu eta 80 helburu berezi proposatzen dira, eta aldundiko sail guztien jarduketaren laguntzaz jadetsi beharko dira.

Bizkaia 21 Egitasmoan, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikorako eta bertako udalerrietarako garapen iraunkorraren ereduaren alde hartutako konpromisoan aldundiaren beraren ekintza bideratzeko oinarriak jasota dagoz.

Horrezaz gainera, lan-agiria izango da, eta, bilakaeraren aldian aldiko jarraipenaren eta ebaluazinoaren bitartez, iraunkortasuneranzko ekintzaren jarraipena bermatuko dau berez.


2. Bizkaia 21 Egitasmoa diseinetako prozesua

2.1 Eztataidarako proposamena

Bizkaiko ahaldun nagusiak foru-administrazioan garapen iraunkorraren kontzeptua barruratu egin behar zala adierazo eban, eta aldundiko sail guztiek agiri hau egin eben dei hareri erantzuteko.

Iraunkortasunaren erispideak kontuan hartuta, ezinbestekoa zan partaidetzan oinarritutako landinamikak sustatzea politiken garapenean zeresana eukiko eben eragileen artean. Bizkaia 21 Egitasmoa sendoa izan eiten, ahal danik eta inplikazio eta baterako erantzukizun handienak jaldetsi behar ziran foru-aldundiaren arlo politikoan zein teknikoan. Halanda ze, lanaren ezaugarriei erreparauta, barruko partaidetzarako prozesua edegi zan, eta, bertan, zuzendaritza nagusiek eta eurek izentautako talde teknikoek zehaztu eben zelako ekarpena egingo eben iraunkortasunaren zeharkakotasunera, bai eta eurek arloka garatzen ebezan politikan barruratzeko prozesura be. Holan, bada, Bizkaia 21 Egitasmoa posibilista baizen errealista izango zan, ekintza zehatzera bideratuta egongo zan, eta garapen iraunkorraren kontzeptua eduki barik itxi eikean ustezko erretorikatik urrun egongo zan.

Hurrengo grafikoan antzemoten danez, talde-lanerako saio dinamikoak garatu ziran, eta, bertan, garapen iraunkorra izan zan eztabaidagai nagusia, hau da, Aalborg+10eko Konpromisoak eta konpromiso horreek aldundiko arlokako politikan kontuan hartzeko prozesua.



Aldundiko sail guztietako zuzendari nagusiakaz egindako lehenengo batzarrean, Bizkaia 21 Egitasmoa eratzeko beharrezko **alderdi garrantzitsu** honeek adostu ziran:

- Maila handieneko **aitzindaritza** sendoa, foru-aldundian erantzukizuna eukien personeren arteko onespenezko politiko eta tekniko egokia.
- Foru-aldundiak garapen iraunkorrari begira eukan jarrerako oinarrizko alderdiei buruzko **adostasun** orokorra.
- Ahal zanik eta **barruko lankidetzaren eta partaidetzaren** handienak foru-aldundiko sailen artean.
- Sailen arteko **komunikaziorako** eta **koordinaziorako** eten bako osogaien ezarpena.
- Teknikariek eta arduradun politikoek osotutako barruko eta eten bako **lan-taldea**, gaiari buruz eten barik hausnartu eta eztabaidatu ahal izateko.

Hona hemen barruko partaidetzarako prozesuaren **ondorioak**, jasotako ekarpenak, iradokizunak eta eretxiak kontuan hartuta:

- Garapen iraunkorraren kontzeptua bera barik, eguneroko politiketan ezarteko zailtasuna da eztabaidagarria.
- Egiaztatu egin da foru-aldundian bertan hiru aldagaiak (ingurumena, ekonomia eta gizartea) kontuan hartzen dabean politikak garatu dirana. Ekimen horreek prozesua bultzatu behar dabenez, sail guztiek euki behar dabe euren barri.
- Prozesuan zehar, argi eta garbi ikusi da zer sailek bultzatu leikien garapen iraunkorrerantz behar egiteko prozesua.
- Foru-aldundiko eginkizunen organigrama egokitu egin behar dan ala ez eztabaidatu behar da. Holan, bada, lerro estrategikoetako partaidetza eraginkorra izango da, proposatutako helburu guztiak partaidetza horren bidez beteko dira eta baliabideen eraginkortasuna handiagoa izango da.
- Esandako guztiaren ondorioz, inplikautako sailen arteko barruko lankidetzak handiagoa izan behar da. Esperientzia hori sailtako batean abian badago be, sustatu egin beharra dago.
- Tokian tokiko autonomia babestu beharra dago zelan edo halan. Gure ordena politikoaren premisa da, hain zuzen be. Dana dala, arauzko egitasmo-xedapenak aldarrikatu daitezke, eta, autonomia hori urratu barik, iraunkortasunerako gitxieneko ereduak zehaztu daikiez udaleko jarduketei begira.
- Administrazioen arteko lankidetzak areagotu egin behar dira, eta eskumen zurrunen ohiko eskemea gainditu behar da, politiken zein jarduketan arteko koherentzia zapuzten dauelako.
- Gaur egun, iraunkortasuna bera gure eguneroko kudeaketaren eta politikearen oinarria izan behar da, foru-administrazioaren kudeaketa egokia izateko.

3. Bizkaia 21 Egitasmoaren printzipioak

Agiri honek orientazio iraunkorra eskeini behar deutse Bizkaiko Foru Aldundiaren esparruan garatzen diran jarduketa guztiei.

Adierazotakoaren haritik, funtsezkoa da jarduketa horreetan inplikautako persona eta eragile guztiek hurrengo printzipioak kontuan hartzea.

Holan, bada, erantzukizuna eukiko dogu gure lurraldeko iraunkortasuneranzko bidean. Horren ondorioz, gainera, aldundiko arlokako politikak printzipioen arabera koordinauko doguz, gure gizartea sentzibilizatu egingo da eta Bizkaiko Foru Aldundian norabide horretan garatzen diran ekimenak bateratuko doguz.

3.1 1. PRINTZIPIOA - Ekonomiaren, ingurumenaren, gizartearen eta kulturearen arloan kontuan euki beharreko alderdiak, erabagiak hartzeko orduan

Jarduketa iraunkor guztiek urtenbideak bilatu eta erabagiak hartzeko prozesuak bultzatu behar dabez, kontuan hartutako alderdi guztietan onura orekatuak jadesi ahal izateko.

3.2 2. PRINTZIPIOA - Belaunaldi arteko ekidadea

Ez dago ezelango neurririk hartzerik, etorkizuneko belaunaldien premiak aintzat hartu barik. Halanda ze, plangintza bera gaurtik, gaurko eta biharko egin behar dogu, eta erabagi askoren ondorioak atzeraezinak dirala hartu behar dogu kontuan.

3.3 3. PRINTZIPIOA - Oinarrizko premiei erantzuteko, txirotasunaren arazoari aurre egiteko eta belaunaldi barruko ekidadea sustatzeko prozesua

Diseinetan eta garatzen diran jarduketa guztiek arlo guztietako oinarrizko premiei aurre egin behar deutse (lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-laguntza...), eta biztanleen arteko ekidadea sustatu behar dabe, euren jatorria, elbarritasuna, generoa, edadea, erlijioa... edozelakoa izanda be.

3.4 4. PRINTZIPIOA - Gobernantza egokia eta partaidetza

Diseinutik bertatik, uritarrek erabagiak hartzeko prozesuan parte hartuko dabenez, erabagiak eurak gardenagoak izango dira, administrazio honenganako konfiantza handiagoa izango da eta baterako erantzukizuna areagotu egingo da.

3.5 5. PRINTZIPIOA - Nortasun kulturalaren sustapena

Alderdi ekonomikoei lehentasuna emon beharrez, helburu nagusia izan behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko bertako osogai kulturalak eta idiosinkrasia sustatzea, balio garrantzitsuak diralako berez.

3.6 6. PRINTZIPIOA - Erabagiak hartzeko zeharkakotasuna

Koordinazio administratiboa behar egiteko ohiko modua izan behar da, sail batzuen eraginpean egon daitekezan gaiak jorratzeko, ondorio sinergikoak erdiesteko eta sail baten jarduketak beste sail baten jarduketan kalterakoak ez izateko.

4. Konpromisotik ekintzara

4.1 Sarrera

Uri eta Herri Iraunkorren Europako IV. Batzarra 2004ko bagilean egin zan Aalborgen. Bertan, Europako toki-gobernuek, Bizkaiko Foru Aldundiak, besteak beste, Aalborgeko konpromisoak onartu ebezan.

Ezagutzan oinarritutako ekonomian lana sortzeko, txirotasunari eta gizarte-bazterketari aurre egiteko, ingurumenaren babes eraginkorra bermatzeko, aztarna ekologikoa gitxitzeko, aldaketa demografikoei erantzuteko eta kultura ugaritasuna bermatzeko erronka bateratuen aurrean, erantzukizunak onartu behar dira ezinbestean.

Ez da asmoen beste adierazpen bat, ekintzari ekin gura deutsalako, *iraunkortasunaren* aldeko konpromiso batzuk onetsi ostean.

Holan, bada, bere eskumenen arabera, foru-aldundiak garapen iraunkorraren sustapenean zeresan handia daukanez, 30 lerro estrategiko ezarri dira Bizkaia 21 Egitasmoa egituratzeko. Eurei esker, Aalborgeko 10 Konpromisoak gitxi-gitxika beteko dira, eta esaldi handiak jarduketa zehatz, hau da, Foru Agenda 21 bihurtuko dira.

Aalborgeko konpromisoak onartzean, ahalegin handiagoa egiten dogu lurraldearen garapen iraunkorrerantz. Izan be, konpromisook onesten dabezanean, toki-gobernuak helburuak zehazteko prozesuan sartzen dira, tokian tokiko solaskideakaz berba egiten dabe, Toki Agenda 21 edo iraunkortasunerako beste ekintza-plan batzuk hartzen dabez kontuan eta Aalborgeko konpromisoen agiriari egiturea emoten deutsien 10 gai nagusietara egokitutako eta lotutako helburuak ezarten dabez.

4.2 Egiturea

Aalborgeko 10 Konpromisoak hurrengo puntuan garatuko dira, lerro estrategiko jakin batzuen bitartez. Lerrook **helburu nagusi** bana daukie, baina horrezaz gainera, **helburu bereziak** be badaukiez, eta, aldi berean, **jarduketa zehatzak** be jasoten dabez, bai eta jadesteko beharrezkoa dan epea zein betearazpen-mailaren jarraipenerako adierazlea be.

Era berean, helburu bereziak beteteko beharrezkoak diran **erantzukizunak** be esleitu egingo dira. Lerro estrategikoen eta helburu nagusien garapenari jagokon erantzukizuna baterakoa da gehienetan, eta sail baten baino gehiagoren esku dago. Halanda ze, agirikoa da jarduketa administratiboak koordinatu egin behar diranla, garapen iraunkorrerantz abiatzeko. Jarduketa

zehatzak, osterak, sail bakoetarako jagokozanez, sailen jarduketak koordinatutakoan ezarritako helburuak (nagusiak eta bereziak) beteko dira eta are hurrago egongo dira onartuko konpromisoak.

I. eranskinean, lerro estrategikoen, helburu berezien eta sail arduradunen **laburpen-taulea** dago ikusgai.

4.3 Aalborgeko konpromisoak eta lerro estrategikoak

4.3.1 1. KONPROMISOA - Gobernu-erak

Partaidetzan oinarritutako demokrazia handiagoaren bidez, erabagiak hartzeko prozedurak sustatzeko konpromisoa hartu dogu.

Gitxi-gitxika, partaidetzarako barruko prozesuak hasiko dira erabilten, aldundiko zerbitzu publikoen diseinuan, plangintzan eta kudeaketan eragina daukien erabagiak hartzeko orduan.

Bizkaiko Foru Aldundiarentzat ezinbestekoa da bertako sailak ekarpenak egiteko prest egotea, Bizkaiko garapen iraunkorrerako ereduari aurrera egin gura izan ezker. Garapen iraunkorrerako estrategia bateratua, partekatutako ikuspegia eta balioak ezarri ahal izateko, ezinbestekoa da sailen arteko zein sailen barruko alkarlana sustatzea.

Foru-administrazio maila guztietan partaidetzan oinarritutako dinamikak erabili ezker, baterako erantzukizuna areagotu egingo da, baterako ekimenak bultzatu egingo dira eta eragile arduradunak, politikoak eta teknikoak gehiago inplikatu dira, dinamikok eraginkortasunez garatu ahal izateko. Bestetik, uritarrek parte hartzen badabe, hartutako neurrien legezotasuna are handiagoa da, erabagiak gardentasunez hartzen dira eta biztanleen baterako erantzukizuna bultzatzen da. Horren guztiorren ondorioz, gizarteak konfiantza handiagoa eukiko dau erakunde honetan.

Partaidetza hori aldundiko sailetan sustatzeko asmotan eta prozesu horreen ezarpenerako laguntza emateko asmotan, lan-taldea sortu zan, Bizkaiko politika iraunkorren inguruko hausnarketarako eten bako alkarrizketa-foroa koordinetako eta Bizkaia 21 Egitasmoaren jarraipena zein ebaluazioa bermatzeko, besteak beste.

| | |
|---|---|
| 1.1. Ierro estrategikoa | PARTAIETZARAKO ETA BARRUKO KOMUNIKAZINORAKO EREDUAREN ETA OSOGAIEN EGITURAKETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN |
| Helburu nagusia | Bizkaia 21 Egitasmoaren inguruan eta foru-administrazio mailen artean partaidetzan oinarritutako dinamikak abian imintea. |
| Helburu bereziak | |
| 1.1.1 | Barruko partaidetzaren inguruko jarrera zehaztea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Partaidetzan oinarritutako prozesuak abian iminteko arrazoiak eta onurak aztertzea. ■ Ezarten diran dinamiketan zer eragilek parte hartuko daben eta euren partaidetza zelan egituratuko dan zehaztea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzta | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Jarrera onartzea. |
| 1.1.2 | Barruko komunikazioaren inguruko jarrera zehaztea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Barruko komunikazinarako prozesuak abian iminteko arrazoiak eta onurak aztertzea. ■ Komunikazioa zer eragilegaz ezarriko dan eta komunikazioa zelan egituratuko dan zehaztea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzta | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Jarrera onartzea. |

| | |
|--|--|
| 1.1.3 | Barruko partaidetzarako adostutako eredia garatzea |
| JARDUKETAK <ul style="list-style-type: none"> ■ Baliabideak esleitzea eta irismena, parte-hartzaileak zein epeak zehaztea. ■ Partaidetzan oinarritutako prozesuak atontzea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Parte-hartzaileen kopurua guztira (Parte-hartzaileen kopurua. Batzarren kopurua). Arloetako ordezkariak (eragileak) eta batzarren maiztasun zein jarraipen maila. |
| 1.1.4 | Barruko komunikazinarako adostutako eredia garatzea |
| JARDUKETAK <ul style="list-style-type: none"> ■ Baliabideak esleitzea eta irismena, hartzaileak zein epeak zehaztea. ■ Komunikazinarako prozesuak atontzea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Jakinarazpenen kopurua guztira (Jakinarazpenen kopurua. Bideen kopurua). Maiztasuna. |

| | |
|---|---|
| 1.2. Ierro estrategikoa | PARTAIETZARAKO ETA KANPOKO KOMUNIKAZINORAKO EREDUAREN ETA OSOGAIEN EGITURAKETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN |
| Helburu nagusia | Bizkaia 21 Egitasmoaren inguruan partaidetzan oinarritutako dinamikak abian imintea uritarrentzat. |
| Helburu bereziak | |
| 1.2.1 | Kanpoko partaidetzaren inguruko jarrera zehaztea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Partaidetzan oinarritutako kanpoko prozesuak abian iminteko arrazoiak eta onurak aztertzea. ■ Ezarten diran dinamiketan zer eragilek parte hartuko daben eta euren partaidetza zelan egituratuko dan zehaztea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzta | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Jarrera onartzea. |
| 1.2.2 | Kanpoko komunikazioaren inguruko jarrera zehaztea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Kanpoko komunikazinarako prozesuak abian iminteko arrazoiak eta onurak aztertzea. ■ Komunikazioa zer eragilegaz ezarriko dan eta komunikazioa zelan egituratuko dan zehaztea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzta | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Jarrera onartzea. |

Erabagiak hartzeko prozesuan gizarte zibilaren partaidetza sustatzeko orduan, sinergiak ezarriko dira toki-erakundeakaz.

Ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko arazoak zehaztean eta aukerak zein urtenbideak proposatzean, Bizkaiko erkidegoko sektoreen partaidetzak zelako balioa daukan kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzeko eta toki-erakundeakaz sinergiak sortzeko borondatea dauka, udalerrietan bertan partaidetzan oinarritutako metodoak bultzatzeko asmotan¹⁰.

Horretarako, Iraunkortasunaren aldeko Euskal Udalerrien Sareagaz (Udalsarea 21egaz) batera behar egitea iruditzen jako egokiena. Era berean, bere jarrera edegia baizen proaktiboa da, Toki Agenda 21eko prozesuetan uritarren partaidetzarako tokian tokiko foroakaz edo taldeakaz batera behar egiteko eta informazio gardenaren bitartez alkarrizketa publikoa sustatzeko.

1. KONPROMISOA: GOBERNU-ERAK

| | |
|--|--|
| 1.3. Ierro estrategikoa | URITARREN PARTAIDETZA, UDAL-ERAKUNDEEN BITARTEZ |
| Helburu nagusia | Udal-erakundeei tokian tokiko partaidetza-sistemetan laguntzea (foroetan, taldeetan...). |
| Helburu bereziak | |
| 1.3.1 | Laguntza logistikoa eta teknikoa emotea udalerrietan uritarrek parte hartzeko bultzatutako prozesuetan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Arlo guztietako foru-teknikariak egotea, aldundiko ekimenei zein eskumenei buruzko informazioa eta eduki teknikoak eskeintzeko. ■ Uritarrentzako prestakuntza-egitasmo didaktikoak egiten laguntzea. ■ Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko zentroi sarbidea eta logistika eskeintzea, uritarrentzako jardunaldi edegien edo gidatutako ikustaldien bitartez. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Udalerrietan uritarren partaidetzarako prozesuak sustatzen emondako orduen kopurua. |

¹⁰ Honako honeek hartuko dira kontuan: Europako Gobernantzen Liburu Zuriko zuzentarauak [COM (2001) 428 azkena], Ingurumenerako Giza Eskubideari buruzko Bizkaiko Adierazpeneko 4. artikulua eta informazioa eskuratzeko aukerari, jentek erabagietan euki beharreko partaidetzari eta ingurumen-arloko justiziarako aukerari buruzko Aarhuseko Hitzarmena.

4.3.2 2. KONPROMISOA - Iraunkortasuneranzko kudeaketa

Diseinuari, ebaluazinoari eta ezarpenari begira, kudeaketa-egitasmo eraginkorrek egiteko konpromisoa hartu dogu.

Toki Agendako prozesuak sustatuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparru osoan zein bertako udalerrietan.

Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunaren erispideen ezarpena eta garapena sendotu gura dauz bere foru-eskumenen esparruan, eta, horretarako, Bizkaia 21 Egitasmoa egin eta abian iminiko dau, iraunkortasunerako zeharkako politikearen tresna estrategikoa da-eta.

Iraunkortasuneranzko kudeaketa egokiari begira, administrazioak berregituratu egin behar dirala dino ortodoxiak. Sail independenteen araberako antolamenduak eragindako konpartimentu estankoak gainditu behar dira, eta antolamendua bera egokitu egin behar da, garapen iraunkorraren helburu bateraturanzko koordinazio administratiboa sustatzeko.

Bestetik, Toki Agenda 21eko prozesuak bultzatzen jarraitu beharra dago Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien artean¹¹. Horretarako, oso lagungarria da Iraunkortasunaren aldeko Euskal Udalerrien Sarean (Udalsarea 21en) parte hartzea eta Bizkaiko Udalerrietarako Iraunkortasun Adierazleen Sistema eguneratzea.

¹¹ Honako hau dino Lisboako Ekintza Planak (Gutunetik ekintzara, 1996): “gure eretziz, tokian tokiko agintariak izan behar dira Toki Agenda 21en bultzatzaile nagusiak”.

2. KONPROMISOA: IRAUNKORTASUNERANZKO
KUDEAKETA

| | |
|---|---|
| 2.4. Ierro estrategikoa | IRAUNKORTASUNERAKO POLITIKEN SUSTAPENA BIZKAIAN |
| Helburu nagusia | Behar besteko ekimenak abian imintea, iraunkortasunaren printzipioak aldundiko eta udaleko arloko politikan ezarteko. |
| Helburu bereziak | |
| 2.4.1 | Aldundiko antolamendu administratiboa Aalborg+10en onartutako konpromisoetara egokitzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Behar besteko eraginkortasuna daukan egitura horizontala ezartea, iraunkortasunerako politikak bideratzeko. ■ Sail bakoitzean barruko koordinatzailea izentetea, horreen eta egitura horizontalaren arteko lotunea izateko. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Sailek iraunkortasuneko eragileak izentetea. |
| 2.4.2 | Bizkaiko Foru Aldundian iraunkortasunerako politikak sustatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiko Gobernu Kontseiluak Bizkaia 21 Egitasmoa onartzea. ■ Bizkaia 21 Egitasmoa sail guztietan ezartea. ■ Bizkaia 21 Egitasmoaren barri emotea, aldundian bertan zein uritarren artean. ■ Bizkaia 21 Egitasmoaren jarraipena egitea eta eguneratzea, bere indarraldiari eusteko asmotan. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Bizkaia 21 Egitasmoaren berrikusketa-kopurua. |

2.4.3

Foru-aldundiak onartutako planen eta egitasmoen iraunkortasuna ebaluetea

JARDUKETAK

- Aldundiko planek eta egitasmoek Aalborg+10eko Konpromisoen betearazpenean euki daben ekarpena ebaluetako protokoloa diseinetzea, onartzea eta betearazotea

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzta | Sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Aalborg+10eko Konpromisoen arabera ebaluautako foru planen eta egitasmoen kopurua. |

2.4.4

Iraunkortasunerako politikak sustatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan

JARDUKETAK

- Udalsarea 21en eta bertako lan-taldeetan parte hartzea, Toki Agendak 21 eta Toki Ekintzarako Planak garatzeko asmotan.
- Lankidetzta-hitzarmenak sinatzea udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Toki Agendak 21 sustatzeko.
- Dekretua onartzea eta argitara emotea, Toki Agenda 21eko prozesuetan parte hartzen daben udalerrietako ekintza-planetako proiektuetarako dirulaguntzak ezarteko.
- Bizkaiko Udalerrietarako Iraunkortasun Adierazleen Sistemea kalkuletea eta eguneratzea.
- Beharrezkoa izan ezker, erakundeakaz, organismoakaz eta entidadeakaz hitzarmenak ezartea, adierazleen sistemea elikatzeke.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzta | Udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza, IHOBE. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Bizkaiko Lurralde Historikoan betearazoten dabilzan toki-ekintzarako planen kopurua. |

2.4.5

Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza sendotzea iraunkortasuneranzko ekimen europarretan

JARDUKETAK

- Bizkaiko Lurralde Historikoko iraunkortasunerako politikak sendotzen dabean proiektu europarretara atxikitzea.
- Uri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpainan eta bertako sareetan zuzenean parte hartzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko iraunkortasunerako politiken aurrerapena ikuskatzeko eta aztertzeko.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzeta | ICLEI (Garapen Iraunkorraren aldeko Toki Gobernuen Nazinoarteko Alkartea) |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak Europako proiektuetarako erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

2. KONPROMISOA: IRAUNKORTASUNERANZKO
KUDEAKETA

| | |
|--|---|
| 2.5. Ierro estrategikoa | GARAPEN IRAUNKORRARI BURUZKO PRESTAKUNTZAREN SUSTAPENA |
| Helburu nagusia | Aldundiko beharginen prestakuntza eta gizartearen kontzientziarazina areagotzea garapen iraunkorraren inguruan. |
| Helburu bereziak | |
| 2.5.1 | Prestakuntza iraunkorra sustatzea Bizkaiko Foru Aldundian |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Barruko hausnarketarako eta prestakuntzarako kanpainak atontzea, arloko politiken bidez Aalborg+10eko Konpromisoak beteten joateko. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. Herri Administrazio Saila. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Prestakuntzan emondako orduen kopurua personako. Ordezkatutako foru-arloak. |
| 2.5.2 | Andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunari buruzko prestakuntza bultzatzea Bizkaiko Foru Aldundian |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Genero-politikeari buruzko gaiak sartzeko oposizioetan. ■ Bizkaiko Foru Aldundiko beharginak sentsibilizetako jardunaldiak atontzea. ■ Genero-politikeari buruzko jardunaldiak eta ikastaroak atontzea Barruko Prestakuntza Planean. | |
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. |
| Lankidetzak | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Prestautako lagunen kopurua. Ordezkatutako foru-arloak edo partaidetzako foru-arloak. |

| | |
|--|--|
| 2.5.3 | Gizartearen ingurumen-arloko prestakuntza sustatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingurumen-arloko prestakuntza-modulua sartzea Lan eta Trebakuntza Saileko zein Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saileko fondoan bidez finantzatutako ikastaroetan. ■ Teknikarien prestakuntza bultzatzea ingurumenaren eta garapen iraunkorraren arloan. | |
| Erantzukizuna | Lan eta Trebakuntza Saila. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. Ingurumen Saila. |
| Lankidetzatza | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Lan eta Trebakuntza Sailak zein Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak finantzatutako ikastaroetan ingurumen-arloko prestakuntza jasoten daben lagunen kopurua. |
| 2.5.4 | Gizartearen prestakuntza sustatzea andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren arloan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren arloko prestakuntza-modulua sartzea Lan eta Trebakuntza Saileko zein Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saileko fondoan bidez finantzatutako ikastaroetan. ■ Teknikarien prestakuntza bultzatzea andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren arloan. | |
| Erantzukizuna | Lan eta Trebakuntza Saila. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Lankidetzatza | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Lan eta Trebakuntza Sailak zein Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak finantzatutako ikastaroetan andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren arloko prestakuntza jasoten daben lagunen kopurua. |

2.5.5 Prestakuntza sustatzea gizarteratzeko politiken arloan.

JARDUKETAK

- Prestakuntza-modulua sartzea, kultura arteko bitartekaritzarako profesionalak berziklatzeko.
- Prestakuntza-modulua sartzea, gizarterapenerako profesionalak berziklatzeko.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Lan eta Trebakuntza Saila. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Lankidetzatza | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Lan eta Trebakuntza Sailak zein Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak finantzaturako ikastaroetan kultura arteko bitartekaritzan behar egiten daben profesionalen berziklapena sustatzeko prestakuntza jasoten daben lagunen kopurua. |

4.3.3 3. KONPROMISOA - Danon ondasun naturalak

Danon ondasun naturaletarako bardintasunezko aukera babestu, zaindu eta bermatzeko asmotan, gure erantzukizuna bete-betean onartzeko konpromisoa hartu dogu.

Bizkaiko balio naturalen artapena eta baliabideok bardintasunez eskuratzeko bermea.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakin badaki airea, ura, lurzorua, paisaia, florea eta fauna, euren parametro eta alkarren arteko lotura egokiak kontuan hartuta, hau da, ingurumena bera, zentzu zabalenean¹², zentzuz, zuhurtziaz eta arduraz kudeatu behar dirana, gaur egungo eta etorkizuneko premiak ahaztu barik¹³.

Erantzukizun-esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak faktore jakin batzuk hartzen dauz kontuan arlokako politikak garatzeko orduan; esate baterako, ekosistemen ekoizpen-ahalmenaren errespetua eta kutsaduraren aurrezaintza.

Batez be, Bizkaiko Foru Aldundiak uraren kudeaketa integratu eta iraunkorraren inguruan zehazten dau bere jarduera. Era berean, Bizkaiko ibaien kalidade ekologikoa berreskuratzen dau¹⁴; basoak zein basoko lursailak babestu, erabili eta barritu egiten dauz¹⁵; eta errepideak txertatzen dauz ingurunean.

Horrezaz gainera, Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikorako¹⁶ prozesuen bidez, bermatu egin behar da plan eta egitasmo jakin batzuek ingurumenean kalte larrik eragingo ez dabela.

¹² Azalpen hori Euskal Herriko Ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorreko 1.2. artikuluan agertzen da.

¹³ Ingurumenerako Giza Eskubideari buruzko Bizkaiko Adierazpenaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, "botere publikoek eta nazinoarteko erakundeek ingurumena euren eskumeneko bide guztien bitartez babesteko eta barritzeko erantzukizuna daukie".

¹⁴ Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2000ko urriaren 23an emondako 2000/60/EE Zuzentaraua da erreferentzia, eta, horren arabera, Europako Jarduketa Egitasmoa ezarten da uren politikeari begira.

¹⁵ Europar Batasunak Basogintzarako sustatutako Estrategiaren haritik [COM (1998) 649, 1998ko zemendiaren 3koa], basoen kudeaketa iraunkorra bultzatzea da helburua, Europako basoen babesari buruzko ministro-batzar paneuroparrean emondako azalpenaren arabera (Helsinki, 1993). Bertan adierazotakoa kontuan hartuta, basoak eta mendiak kudeatzeko eta erabilteko metodoek eta bizitasunak bertako biodibersidadea, emonkortasuna bermatu behar dabez, bai eta bizibarrizteko daukien gaitasuna eta orainari zein etorkizunari begira eginkizun ekonomikoak, ekologikoak eta sozialak tokian-tokian, nazino-mailan eta nazinoartean beteteko daukien ahalmena be, beste ekosistema batzuei ezelango kalterik eragin barik.

¹⁶ Plan eta egitasmo batzuek ingurumenean daukien eraginaren ebaluazioari buruzko 2001/42/EE Zuzentaraua. Euskadin ezarri da garagarriaren 22ko 183/2003 Dekretuaren bidez.

3. KONPROMISOA: DANON ONDASUN
NATURALAK

| | |
|---|--|
| 3.6. Ierro estrategikoa | UREN POLITIKA INTEGRALAREN GARAPENA, URAREN ZUZENTARAUA BETETEN LAGUNTZEKO |
| Helburu nagusia | Uraren kudeaketa integratua eta iraunkorra sustatzea eta Bizkaiko ibaietako uren kalidade ekologikoa berreskuratzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 3.6.1 | Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanle guztiek kalidadeko ur nahikoa eukitea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Hornikuntzako azpiegiturretan inbertidutea, giza kontsumorako uren kalidadeari buruzko 98/83/EE Zuzentaraua beteteko asmotan. | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, ur-partzuergoak, Eusko Jaurlaritzak, Konfederazio Hidrografikoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Kalidadeko ur nahikorik ez daukien biztanleen %. |
| 3.6.2 | Uraren kontsumo iraunkorra bultzatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Udal-arduradunentzako sentsibilizazio-kanpainak atontzea, ur-galerak gaitzitzeko eta ura berrerabilteko. ■ Uritarrak uraren zentzuzko kontsumoaren inguruan kontzientetako kanpainak egitea. ■ Azpiegitura barrietan inbertidutea, ur-galerak gaitzitzeko eta ura berrerabilteko. | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, ur-partzuergoak, Eusko Jaurlaritzak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Uraren kontsumoa personako/eguneko (litro/personako/eguneko). |

| | | |
|---|--|--|
| 3.6.3 | Uriolen ondorioei aurre egitea | |
| JARDUKETAK | | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Uriolak egon daitezkezan eremuetako lursailetan esku hartzea. ■ Ahal danik eta neurri zuzentzaile bigunenetan inbertidutea, lehendik dagozan arriskuak gitxitzeko. | | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. Urigintza eta Udal Harremanen Saila. | |
| Lankidetzak | Udalak, Eusko Jaurlaritza. | |
| Epea | 2005-2010 | |
| Adierazlea | Uriolei aurre egiteko, Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbersinoak (euro/urteko). | |
| 3.6.4 | Ur-zerbitzuaren homogeneizazioa sustatzea | |
| JARDUKETAK | | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Urak mankomunidadeen edo partzuergoen bidez kudeatzeko ereduaren azalpena eta ezarpena sustatzea udalerrietan | | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. | |
| Lankidetzak | Udalak, ur-partzuergoak. Urigintza eta Udal Harremanen Saila. | |
| Epea | 2005-2010 | |
| Adierazlea | Mankomunidadeko edo partzuergoko kideak diran udalerrien kopurua. | |

3.6.5

Uraren Esparru Zuzentzerian xedatutakoa kontuan hartuta, kostuak berreskuratzeko printzipioaren arabera tarifen ezarpena sustatzea

JARDUKETAK

- Udalei udaleko ur-kontsumoak kalkulatu laguntzea.
- Udal Azterlanetako eta Toki Erakundeentzako Laguntza Zerbitzuko (UDALKOSTeko) programa berezia erabiltea, udalerrietan hornikuntzako eta saneamentuko zerbitzuen kostuak kalkulatu, kontsumoari buruzko datuetan oinarrituta.
- Uritarrei tarifak eguneratzeko premiaren barri emoteko orduan, udalei laguntzea.
- Udalei aurrekontuaren likidazioa aurkezteko eskatzea.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. |
| Lankidetzak | Ingurumen Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Tarifen bidez udalerrietako uren zerbitzuko kostuak estaltzen ez dabean erabiltzaileen %. |

3.6.6

Ur kontinentalen kalidade ekologikoa hobetzea eta kontroltea

JARDUKETAK

- Saneamentuko eta arazketako azpiegituretan inbertidutea, 91/271/EE Zuzentzeria bete egiten dala bermatzeko.
- Ibai-ekosistemen ingurumen-erlora hobekuntza, artapen edo erabarriketa hidrologikorako jarduketak garatzea.
- Ibaien jarraipenerako eta fauna iktikoaren zirkulazio aserako oztopoen eta presen inbentarioa egitea.
- Sare hidrometeorologikoa handitzea eta hobetzea eta kalidadeari buruzko datuak unadan bertan Interneten argitaratu emotea.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Eusko Jaurlaritza, ur-partzuergoak, udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Uren egoera ekologikoa ona izanda, uren kalidadea kontrolatu guneen %. |

3. KONPROMISOA: DANON ONDASUN
NATURALAK

| | |
|---|---|
| 3.7. Ierro estrategikoa | BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO BASOGINTZA KUDEATZEKO POLITIKA IRAUNKORRAREN GARAPENA |
| Helburu nagusia | Basoen kudeaketa iraunkorrerako erispide paneuroparrak ezartea Bizkaiko Lurralde Historikoan. |
| Helburu bereziak: | |
| 3.7.1 | Basoen kudeaketa iraunkorraren ziurtagiria sustatzea Bizkaian |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Bizkaiko Foru Aldundiko ondare-basoak ziurtatzea. ■ Bizkaian esku pribaduetan dagozan basoen ziurtapena suspertzea. ■ Bizkaiko basoak taldean ziurtatzea. ■ Basoen kudeaketa iraunkorrari buruzko erispideak eta adierazleak zehaztea eta Bizkaiko ezaugarrietara egokitzea. ■ Basoen kudeaketa iraunkorrerako UNE 162000 serieko arauak bete egiten dirala kontroletzea. ■ Basoen kudeaketa iraunkorreko jarduera egokien kodea egitea. ■ Basoen kudeaketa iraunkorrerako planen ereduak egitea. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzta | Euskadiko Basogintza Ziurtagirirako Alkartea (ACE), Basalde. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Basoen kudeaketa iraunkorrari buruzko arauaren arabera ziurtatutako Bizkaiko azaleraren %. |

3. KONPROMISOA: DANON ONDASUN
NATURALAK

| | |
|---|---|
| 3.8. Ierro estrategikoa | PAISAIAREN BABESA |
| Helburu nagusia | Errepideak euren ingurunean txertatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 3.8.1 | Errepideek paisaian sortutako ikusizko inpaktua gitxitzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Errepide-proiektuek ingurumenaren gainean daukien eraginari buruzko azterketen edukia eta irismena hobetzea eta paisaia babestea. ■ Eraginari buruzko Adierazpeneko baldintzak beteteko asmotan, lanak ikuskatzea eta jagotea. ■ Errepidea zerbitzuan imini osteko lehenengo urteetan, ezarritako neurri zuzentzaileen bilakaera kontroletea, unadan bertan edo bihar-eguneko proiektuen bidez zuzentzeko. ■ Ikusizko inpaktua gitxitzeko aukera eskeintzen daberen errepide-tarteak (km) antzemotea eta zenbatzea. ■ Esku hartzeko eremuak objetibetako eta lehenesteko erispideak ezartea (EBI, gizartearen presinoa, eraginaren intentsitatea eta beste batzuk). ■ Bioingeniaritzako teknikak ezartea esku hartzeko eremuen zaharbarrikuntzan. ■ "Bizkaiko Errepideen Sareko Eremu Hondatuak Berreskuratzeko Lanak" orria argitara emotea. | |
| Erantzukizuna | Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Lankidetzak | Ingurumen Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Errepideetako eremu mugakideak egokitzeko jarduketaren kopurua. |

3. KONPROMISOA: DANON ONDASUN
NATURALAK

| | |
|--|--|
| 3.9. Ierro estrategikoa | PLANEN ETA EGITASMOEN INGURUMEN-EBALUAZINO ESTRATEGIKOA |
| Helburu nagusia | Planen eta egitasmoen iraunkortasuna bultzatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 3.9.1 | Urigintzako plangintzarako tresnek ingurumenean daukiezan eraginak ebaluetea |
| <p>JARDUKETAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldez aurretik eta behin betiko ebaluetea uri-antolamendurako plan nagusiek, arau ordezkatzailleek, plan bereziek eta euren aldaketek ingurumenean daukiezan eraginak, beti be egin beharreko aldaketek urbanizagarria ez dan lurzoruan eraginik badaukie. | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. Udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Behin betiko ebalueta dagozan urigintzako plangintzarako tresnak. |

4.3.4 4. KONPROMISOA - Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

Baliabideak zentzuz eta egokitasunez erabilteko eta kontsumo zein ekoizpen iraunkorrak sustatzeko konpromiso irmoa hartu dogu.

Zerga-eraldaketa ekologikoa.

Aldundiak zerga-arloko eskumena daukanez, ingurumenaren babesa suspertzeko tresnak ezarri daitezke, eta, horren ondorioz, gizartearen zein enpresen jarduketa bideratu daiteke. Halanda be, asmo horren gainera, zerga-eraldaketa ekologikoa zelan egituratu behar dan hausnartu beharra dago. Holan, bada, laneko etekinen gaineko zerga-zama baliabideen kontsumorantz (baliabide energetikoen kontsumorantz, batez ere) edo kutsagarrien igorpenerantz bideratuko da, dibidendu bikotxa jadesteko, hau da, ingurumenaren babes handiagoa eta lan-tasa handiagoa¹⁷.

¹⁷ Zentzun horretan, ikus IHOBEn "Euskadiko zerga-eraldaketa ekologikoa" argitalpena (2003).

4. KONPROMISOA: KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

| | |
|---|--|
| 4.10. Ierro estrategikoa | ZERGA-ERALDAKETA EKOLOGIKOA |
| Helburu nagusia | Zerga-zama baliabide naturalen erabilerarantz eta kutsagarrien igorpenerantz bideratzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 4.10.1 | Zerga-eraldaketa ekologikoari begira zerga-zama barrero banatzeko neurriak aztertzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Bizkaiko Foru Aldundiko sailen arteko kide ugariro hausnarketa egitea, Ogasun eta Finantza Sailaren aitzindaritzapean. ■ Arauzko xedapenei buruzko zirriborroak egitea. ■ Erakundeek (Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek) aurreko zirriborroei buruz egindako hausnarketako aitzindaritza eukitea, Euskal Autonomia Erkidego osoan zerga-eraldaketa ekologikoa era koordinatuan ezarri ahal izateko. | |
| Erantzukizuna | Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | Aldundiko beste sail batzuk. Beste foru-aldundi batzuk. Eusko Jaurlaritza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Erakunde arteko hausnarketan adostutako neurrien kopurua. |

Baliabideen zentzuzko erabilera eta kontsumo eraginkorrak.

Bizkaiko Foru Aldundia zerbitzu publikoak eskeintzen dauzen erakundea da, baina horrezaz gainera, baliabideak kontsumiduten dauzen eragilea be bada. Alde horretatik, apustu handia egin dau, materialen nahiz energiaren kontsumoak gaitzitzeko eta zerbitzugintzarako baliabideen erabileraren eraginkortasuna handitzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, hain zuzen be, eragina euki daike erosketa publiko arduratsurako politiken garapenean¹⁸. Ondasunak, lanak eta zerbitzuak kontratatetako orduan, edozein administrazinok baliabide ugari erabilten dauzenez, orri tekniko eta administratiboetan ingurumen-arloko erispideak kontuan hartu besterik ez dago, merkadu berdea edo ekologikoa bultzatzeko eta uritarrei behar dan moduko eredu eskeintzeko.

¹⁸ Europako Batzordeak arlo hori lantzen dau, eta, horretarako, honako agiri honeek emoten dauz argitara, besteak beste: kontratu publikoen legeria erkidea eta ingurumen-arloko alderdiak kontratazino publikoan kontuan hartzeko aukerak interpretetako jakinarazpena [COM (2001) 274 azkena] eta gizarte-arloko erispideak kontuan hartzeko beste jakinarazpen bat [COM (2001) 566 azkena]. Horrezaz gainera, lan-agiria be badago, eta gida egokia izan daiteke, erosketa berderako politikea ezarteko ("Buying Green! A handbook on environmental public procurement").

Bestetik, egokia izango litzateke aldundiko sailletako kontsumo-ohituretan aldaketak suspertzea, bai eta eurek kudeatzen dabezan eraikin eta instalazioetan be. Horretarako, ingurumen-arloko kudeaketa-prozedurak ezarri behar dira (EMAS, ISO, EKOSCAN).

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu publikoetarako irisgarritasun handiagoa eskeini ahal deutse uritarrei, elektronika bidezko zerbitzuen bitartez. Horren ondorioz, gainera, garraioa eta baliabideen kontsumoa gitxitu egingo dira.

4. KONPROMISOA: KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

| | |
|--|--|
| 4.11. Ierro estrategikoa | BALIABIDEEN ZENTZUZKO ERABILERA ERAGINKORRAREN SUSTAPENA |
| Helburu nagusia | Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresen jarduketak ingurumenean daukan eragina gitxitzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 4.11.1 | Ingurumena Kudeatzeko Sistemak (IKSak) ezartea eta ziurtatzea aldundiko sailetan eta soziedade publikoetan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Prozesuak zuzendu eta euren jarraipena egiten daberen zuzendaritza-taldeak eratzea eta Ingurumen Saileko zein Ogasun eta Finantza Saileko ingurumen-politikak egitea eta zabaltzea. ■ ISO 14001 arauaren arabera, IKS Ingurumen Sailean eta Ogasun eta Finantza Sailean ezartea ziurtatutako sailen laguntzaz. ■ Ingurumen Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak ziurtagiria jadestea eta hedatzea. ■ Ziurtatutako sailek beste sail eta soziedade publiko batzuetako arduradunak sentsibilizetea. ■ Ziurtatutako sailek beste sail eta soziedade publiko batzuei IKS ezarten laguntzea. | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | Lan eta Trebakuntza Saila. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Aldundiko sailetan eta soziedade publikoetan ziurtatutako IKSen kopurua. |

4.11.2

Ingurumen-arloko erispideak zehaztea eta onartzea, ondasunen, lanen eta zerbitzuen kontratazino zentralizaturako orrietan kontuan hartu ahal izateko

JARDUKETAK

- Kontratazino publikoari buruzko legeria erkidea aztertzea.
- Ingurumenari begira arduratsua dan erosketa publikorako gida-agiriak aztertzea (ICLEI, UE, Generalitat de Catalunya).
- Helburu diran ondasunak, lanak eta zerbitzuak zehaztea.
- Kontratazino zentralizaturako orriak onartzea.

Erantzukizuna

Herri Administrazio Sails.

Lankidetz

Ingurumen Sails.

Epea

2005-2010

Adierazlea

Kontratazino zentralizaturako onartutako orrien kopurua.

4.11.3

Ingurumen-arloko erispideak zehaztea eta onartzea, ondasunen, lanen eta zerbitzuen sailkako kontratazino-orrietan kontuan hartu ahal izateko

JARDUKETAK

- Kontratazino zentralizaturako onartutako eredu-orriak sailen premietara eta ezaugarrietara egokitzea.
- Sail bakoitxerako kontratazino-orriak onartzea.

Erantzukizuna

Sail guztiak.

Lankidetz

Herri Administrazio Sails.
Ingurumen Sails.

Epea

2005-2010

Adierazlea

Sailkako kontratazino-orrietan onartutako orrien kopurua.

| | |
|--|--|
| 4.11.4 | Ingurumen-arloko erispideak kontuan hartuta, ondasunak, lanak eta zerbitzuak kontratetea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Erosketa berderako foru-politikea hedatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren bidez. ■ Bizkaiko Foru Aldundiko eskeintzaileen erregistroan dagozan hornitzaileei erosketa berderako politikearen barri emotea. | |
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. Sail guztiak. |
| Lankidetzak | Ingurumen Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Aldundiak erosketa berdeari begira urtero daukan aurrekontua (euro/urteko). |
| 4.11.5 | Baliabideen kontsumo arduratsua bultzatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresen artean |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresetan IKSak ezarteko dirulaguntza emotea. ■ Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresei Soziedadeen gaineko Zergako bizgarriari buruzko informazioa eskeintzea, ingurumena babesteko eta baliabideak zentzuz kontsumiduteko. ■ Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren gaineko hobariak ezartea 761/2001/EE Araudiak onartutako IKSak daukiezan enpresei. Araudi horren arabera, hain zuzen be, erakundeak borondatez atxiki daitezke ingurumen-arloko kudeaketarako eta ikuskaritzarako sistema bateratura (EMASera). | |
| Erantzukizuna | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta IHOBE. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | IKSak ezarteko dirulaguntza jaso daben enpresen kopurua. |

4.11.6

Hobetzeko aukerak antzemotea eta kulturako ekipamenduak zein zerbitzuak mankomunidadean bateratzea

JARDUKETAK

- Premiak, gabeziak eta zerbitzuak zein azpiegiturak mankomunidadean bateratzeko aukerak aztertzea lurralde-mailan.
- Kirol, kultura eta gazteria arloko zerbitzuak mankomunidadearen bidez eskeintzeko proposatzea.
- Lehendik dagozan azpiegituren eta eregi beharreko azpiegituren (ekipamenduetarako dirulaguntzak) baterako erabilera eta balio-ugaritasuna proposatzea.
- Dirulaguntzak ezartea, mankomunidadeko kirol, kultura eta gazteria arloko ekipamenduak sortzeko, eraldatzeko eta zaharbarritzeko.
- Udaleko kirol-eskoletarako eta mankomunidadeko kultura-zerbitzuetarako dirulaguntzak ezartea, beti be baliabideak zentzuz erabilten badabez.
- Kirolen arloan, mankomunidadearen bidez eskeinitako federazino-zerbitzuak sustatzea Bizkaiko Kirol Federazinoen Alkartegaz (Asfedebigaz) sinatutako hitzarmenen bitartez.
- Kirol Etxea eraikuntza iraunkorrerako erispideen arabera zaharbarritzea.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | Udalak eta mankomunidadeak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Kultura, kirol eta gazteria arloan mankomunidadearen bidez eskeinitako azpiegituren %. |

4.11.7

Euren lanetan ingurumena errespetetan daben jokabideak erakusteko eskatzea herri-lanetako kontratei

JARDUKETAK

- Lanetako hondakinak gitxitzea eta kontroletea, behar dan moduan kudeatu ahal izateko.
- 34/2003 Dekretuak xedatutakoaren arabera, errepideak eregiteko orduan altzairutegietako sarra baltzak erabilten diran ala ez azaltzea kontratazinorako orrietan.
- Errepideak eregiteko orduan, aztertutako eta araututako beste hondakin-material batzuk erabili behar dirala zehaztea kontratazinorako orrietan.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Lankidetzak | Eusko Jaurlaritzak eta IHOBE. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Sarra baltzak edo balorizautako beste hondakin batzuk erabilten dabezan herri-lanen kopurua. |

4. KONPROMISOA: KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

| | |
|--|---|
| 4.12. Ierro estrategikoa | ADMINISTRAZINORAKO IRISGARRITASUNA, ZERBITZU ELEKTRONIKOEN BITARTEZ |
| Helburu nagusia | Mobidu barik eta paperik kontsumidu barik, Bizkaiko Foru Aldundiagaz hartu-emonetan iminteko aukera eskeintzea uritarrei. |
| Helburu bereziak: | |
| 4.12.1 | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailean Internet bidez aurkeztutako laguntza-eskabideen kopurua handitzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Dirulaguntza-lerro guztietarako atari birtuala garatzea. ■ Zerbitzu telematikoak egon badagozala zabaltzea. | |
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Lankidetzak | LANTIK |
| Epea | 2005-2006 |
| Adierazlea | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailean Internet bidez aurkezten diran eskabideen %. |
| 4.12.2 | Telefono eta telematika bidezko izapideak sustatzea zergadunek Ogasun eta Finantza Sailagaz daukien hartu-emonetan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Uritarrei telefono eta telematika bidez eskeinitako zerbitzuak ahal danik eta gehien garatzea. ■ Behar besteko neurriak hartzea, enpresariak, aholkulariak eta profesionalak Ogasunagaz egin beharreko kudeaketak Internet bidez garatu dagozan. ■ Telefono eta telematika bidezko zerbitzuen barri emoteko publizitate-kanpainak abian imintea. | |
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | LANTIK. |
| Epea | 2005-2006 |
| Adierazlea | Ogasun eta Finantza Sailean telematika edo telefono bidez kudeatzen diran zerbitzuen %. |

Hondakinen ekoizpenaren gaineko erantzukizuna.

Jarduketa-arlo honen ondorioz, uri-hondakinak gitxitzeko, berrerabilteko eta berziklatzeko ingurumen-politikei emongo jake jarraipena¹⁹.

Beste ekimen argi batzuen artean, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak kudeatzeko sistemen hobekuntzarako politikak zabaldu behar dira Bizkaiko Lurralde Historikoan, hondakin horreek eragindako kutsadura lausoari aurre egiteko. Aldi berean, hondakinok balorizetako urtenbideak bilatuko dira.

Edozelan be, administrazioak sortutako hondakinak behar dan moduan kudeatzeko egindako ahaleginari begira, ezinbestekoa da gizartea ohiturak egokitzeko premiaren inguruan sentsibilizatea, baliabideak alperrik ez galtzeko eta hondakin-kopurua gitxitzeko.

¹⁹ Hondakinei buruzko foru-politikeak Batzordearen honako jakinarazpen honen filosofia hartu behar dau kontuan: “Hondakinen aurrezaintzarako eta berziklapenerako estrategia tematikorantz” [COM (2003) 301 azkena].

4. KONPROMISOA: KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

| | |
|---|--|
| 4.13. Ierro estrategikoa | URI-HONDAKINAK KUDEATZEKO SISTEMA EGOKIEN EZARPENA |
| Helburu nagusia | Ordena honen arabera, honako honeek sustatzea: uri-hondakinen eta nekazaritzako zein abeltzaintzako hondakinen murrizketa, berrerabilpena, berziklapena eta beste era bateko balorizazioa. |
| Helburu bereziak: | |
| 4.13.1 | Uri-hondakinen sorrera jatorrian bertan gitxitzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Uritarrak hondakinek ingurumenean eragindako arazoaren eta kontsumo-ohitura iraunkorren inguruan kontzientzietako eta informatiko kanpainak garatzea. ■ Uri-hondakinen sorrera gitxitzeko ekimenak ikertzea. | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Udalak. Mankomunidadeak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Personako eta urteko sortutako UHak kg-tan |

4.13.2

Bizkaiko UHen balorizazioa areagotzea

JARDUKETAK

- Informazio hobea eskeintzea, uri-hondakinen frakzioak non bota behar diran jakiteko (berziklontzi-mota, Garbigunea) eta etxeko hondakin arriskutsuak nahiz tamaina handiko hondakinak noiz eta non batzen diran jakiteko.
- Behar beste berziklontzi imintea udalerrietan (ontziak, papera eta beira).
- Erabilitako landare-orioa, etxeko hondakin arriskutsuak (pilak, bernizak, pinturak, aerosolak, hodi fluoreszenteak...) eta egurra hobeto batzea.
- Udalen eta ostalaritzaren zein merkataritzaren arteko lankidetzak-hitzarmenak sinatzea, papera, kartoia, beira eta erabilitako orioa batzeko eta berziklatzeko edo balorizetako.
- Eusko Jaurlaritzak, IHOBEk, EUDELeK, berziklatzeko enpresek, eraikuntza-enpresek eta berziklontzi-enpresek borondatez sinatutako hitzarmenean parte hartzea, eraispen eta eraikuntza hondakinen (EEHen) berziklapena sustatzeko.
- Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean jardutea, lerro zuriko etxetresna elektrikoek hondakinen bilketarako eta kudeaketarako sistemak ezarteko.
- Proiektu eredugarria garatzea, hondakin organikoak gaika batzeko eta konpostetako.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. EUDEL, udalak. Merkataritza, ostalaritza, eraikuntza, berziklontzien enpresak eta berziklatzeko enpresak. Eusko Jaurlaritza, IHOBE. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero gaika batutako UHak kg-tan. Urtero balorizautako UHak kg-tan. |

4.13.3

UHen berrerabilpena sustatzea

JARDUKETAK

- Berohi soziedade kooperatiboagaz (Rezikletak eta Caritasek osotzen dabe) alkarlanean jardutea, oihalezko hondakinak (erabilitako arropa) berzicklontzi berezien bitartez batzeko. Udalen konturakoa izango da kudeaketaren kostua.
- Soziedade mistoa sortzea (Rezikleta, Emaus eta Garbiker artean), tamaina handiko hondakinak kudeatzeko eta jarduera beste hondakin-korronte batzuetara hedatzeko.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | BEROHI, REZIKLETA, EMAUS, GARBIKER, udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero berrerabilitako UHak kg-tan. |

4. KONPROMISOA: KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

| | |
|--|---|
| 4.14. Ierro estrategikoa | NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO HONDAKINEN BALORIZAZINO HANDIAGOA |
| Helburu nagusia | Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinek eragindako kutsadura gitxitzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 4.14.1 | Abeltzaintzako hondakin organikoen zikloa behar dan moduan kudeatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Hildako animalien bilketa hobetzea. ■ Abeltzaintzako hondakin organikoen sortzaileen arauketa administratiboa sustatzea (gorozkiak, minda, simaurra eta efluentek). ■ Nekazaritzarako Laguntzen Planerako aurrekontua zuzkitzea (nekazaritzako eta abeltzaintzako instalazinoen hobekuntza; onibarren eten bako hobekuntzak), abeltzaintzako ustategietan minda-zuloak eta simaurtegiak iminteko. Gitxienez, hondakinak 3 hilabetean biltegitratzeko lekua egongo da bertan. ■ Abeltzaintzako hondakin organikoen garraioaren antolamendu administratiboa sustatzea. ■ Behien, oiloen eta txarrien hondakinen balorizazio energetikorako lantegia eregitzea. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Eusko Jaurlaritza, Ingurumen Saila. |
| Epea | 2005-2006 |
| Adierazlea | Abeltzaintzan balorizetako hondakin organikoen %. |

4.14.2

Nekazaritzako hondakinen zikloaren kudeaketa hobetzea

JARDUKETAK

- Nekazaritzako hondakinen sortzaileen arauketa administratiboa sustatzea.
- Nekazaritzako hondakin kimikoak, plastikoak (ontziak izan ezean), nekazaritzako landare-hondakinak eta albaitaritzako ontziak zein sendagaiak batzeko plana egitea, onartzea eta abian imintea.
- Nekazaritzako hondakin kimikoak, plastikoak (ontziak izan ezean), nekazaritzako landare-hondakinak eta albaitaritzako ontziak zein sendagaiak batzeko guneak iminteko eta kudeatzeko eredu-proiektuak aztertzea.
- Nekazaritzako hondakin horreen guztien balorizazioaren bideragarritasuna aztertzea.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Baimendutako kudeatzailea, kooperatibak, udalak, Eusko Jaurlaritza, Garbiker. |
| Epea | 4-5 urte, fase eredugarrian. |
| Adierazlea | Frakzinoka sortutako guztiak kontuan hartuta, nekazaritzan batutako hondakinen % (nekazaritzako kimikoak, plastikoak, landare-hondakinak eta albaitaritzako ontziak zein sendagaiak). |

4.3.5 5. KONPROMISOA - Urigintzako plangintza eta diseinua

Uriaren diseinuan eta plangintzan zeregin estrategikoa eukiteko eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun zein kultura arloko gaiak danontzako onurarantz bideratzeko konpromisoa hartu dogu.

Iraunkortasunak lurraldea antolatzeko eta garatzeko politiketan egindako ekarpenaren ondorioz, badago garapen iraunkorra sustaterik, lurraldearen egitura orekatua sortu ezker. Europar Batasuneko erakundeek EBk arlo horretan garatutako politikearen hiru printzipioak edo ildoak zehaztu ebezan²⁰:

- Gune ugariko uri-sistema orekatuaren garapena eta landa zein uri ingurunearen arteko hartu-emon barriaren sustapena.
- Azpiegituretarako eta ezagutzarako sarbide baliokidearen bermea.
- Garapen iraunkorra, kudeaketa adimenduna eta naturearen zein kultura-ondarearen babesa.

Lurraldearen garapen orekatu eta iraunkorrerako ikuspegi orokorra, lurraldearen antolamenduaren eta urigintzako plangintzaren bitartez.

Urigintzako plangintza udalen eskumenekoa da. Edozelan be, Euskadiko Lurraldea Antolatzeko Legean xedatutakoaren arabera²¹, “lurraldeko zati-planetan jasoko dira urigintzako antolamenduan kontuan hartu beharreko erispideak, printzipioak eta arau orokorrak”. Bizkaiko Foru Aldundia plan horreek egiten dabilenez, aukera aparta dauka, lurraldearen antolamendutik bertatik iraunkortasunaren erispideak urigintzako plangintzarako tresnetan ezarteko prozesua bultzatu ahal izateko.

Era berean, jarduketa-lerro honetan be badago balio handiko beste tresna ahaltsu bat, Bizkaiko Foru Aldundiak 50.000 biztanletik beherako Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako uri-antolamendurako plan nagusiak eta arau ordezkatzailleak onartzen dauzelako. Era berean, gogoan euki behar da aldundiaren beraren eskumenekoa dala plangintzarako tresna batzuen ebaluazino bateratua²².

²⁰ Lurraldearen Antolamenduko ministroen batzar informala, Leipzig, 1994.

²¹ Euskadiko Lurraldea Antolatzeko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12 d) artikulua.

²² Ikus Euskadiko 183/2003 Dekretuaren 3. artikulua.

Uri-sistema orekatuak, biziak, erakargarriak eta lehiakorrek garatzeko, uri-plangintza zentzuzkoa izan behar da, eta hurreko ingurunearen premien arabera antolatu behar da lurzoru ez-uritarra²³.

Ohiko uri-eremuak eta XXI. mendeko barrikuntzak daukazan eginkizun ugariko uri-eredu trinko baizen ertainak bizi-kalidade egokia bermatzen dau, era guztietako jarduera ekonomikoak erakarten dauz eta garraio publikoaren egokitasunerako oinarria da. Danok dakigunez, uri-plangintza desegokiaren ondorioz garraio-premiak sortzen dira.

Uri eta industria arloko eremuak berbiztea, zaharbarritzea eta bizibarritzea lehentasunezkoa da, lurralde barrien ohiko erabileraren aurrean.

Eraikuntzek urigintzako antolamenduaren bitartez ezarten diran baldintzak bete beharko dabez. Era berean, eraikinen eraginkortasun energetikoaren bultzadeak oso ondorio onak sortuko dauz uriko kontsumoetan. Europar Batasuneko zuzentaraua laster ezarriko danez²⁴, hobe da udalerriaz eta autonomia-administrazioagaz batera hausnartzen hastea.

Amaitzeko, uri eta landa arloko eremuen arteko lankidetzak sustatu behar da, premia berezien arabera danon onurarakoa izango dalako, beti be ingurune bien idiosinkrasia errespetatu egiten bada. Europako Lurralde Estrategiaren arabera²⁵, gaur egun ez dago tokian-tokian dagozan arazo asko konpontzerik, uriaren eta landaren ikuspegi integratua kontuan hartu ezean. Izan be, eskualde-mailako arazoak be badira eta garapenerako erantzukizuna baterakoa da.

²³Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari bialdutako "Uri-ingurumenerako estrategia tematikorantz" jakinarazpenak [COM (2004) 60 azkena, 2004ko zezeilaren 11koa] behin eta barriro adierazoten dau urigintza, eraikuntza eta garraioa iraunkorrek izan behar dirala.

²⁴Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko abenduaren 16an eraikinen eraginkortasun energetikoari buruz emondako 2002/91/EE Zuzentaraua. 15. artikuluan, epea iminten jake estadu kideei, 2006ko urtarrilaren 4rako abian egon beharreko zuzentaraua ezarteko.

²⁵ELE - Europako Lurralde Estrategia, EBko lurraldearen garapen orekatu eta iraunkorrerantz. Hain zuzen be, Lurraldearen Antolamenduko ministroek 1999ko maiatzean Postdamen egindako batzar informalean onartu zan estrategia.

5. KONPROMISOA: URIGINTZAKO PLANGINTZA ETA DISEINUA

| | |
|--|--|
| 5.15. Ierro estrategikoa | URIGINTZAKO PLANGINTZA IRAUNKORRA |
| Helburu nagusia | Bizi-kalidade handia eskeintzen daben uri-eremu egokiak sustatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 5.15.1 | Lurraldeko Zati Planetan (LZPetan) iraunkortasunaren erispideak kontuan hartzea, urigintzako plangintzarako egitasmo moduan erabilteko |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Lurraldeko zati-planak egitea, garatzea eta eguneratzea, honako arlo honeetan iraunkortasunaren erispideak kontuan hartuta: uraren zikloa, energia, eraikuntzako materialak, uri-hondakinak, igorpen kutsagarriak, mobikortasuna eta aukeratutako uri-eredua. ■ Onartzeko asmotan, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazo beharreko plangintza-tresnak LZPetara egokitzen dirala kontroletea. ■ Ingurumenaren ebaluazio estrategikoa egiteko orduan, plangintza-tresnek LZPetako xedapenak bete behar dabezala kontuan hartzea. ■ Urigintzako plangintzari dirulaguntzak emoteko, LPZetako artikuluak bete egin behar dirala ezartea. | |
| Erantzukizuna | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. |
| Lankidetzak | Udalak. Eusko Jaurlaritza. Herri Lan eta Garraio Saila. Ingurumen Saila. Nekazaritza Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Iraunkortasunaren erispideak kontuan hartzen dabezan LZPen kopurua. |

5.15.2

LZPetan jasotako iraunkortasunaren erispideak urigintzako plangintzan kontuan hartzen laguntzea udalei

JARDUKETAK

- Eguzki Ordenantza eredugarria egitea, erregai fosilen kontsumoa borondatez gitxitu gura daben udalerrietan ezarteko.
- Uri-eremuen zahabarrikuntza eta berreskurapena suspertzea.
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria daukien eraikinetarako zerga-ordenantzetan abantailak zehazten konbidetea udalak.
- Udalakaz batzartzea, urigintzako plangintza idazten daben taldeei LZPetan zehaztutako iraunkortasun-estandarren eta euren inplikazioen barri emoteko.
- Urigintzako plangintza lurraldearen antolamendurako tresnetan jasotako helburuetara eta iraunkortasunaren helburuetara egokitu behar dala jakinarazotea.
- 2002/49/EE Zuzentarauan eta Zarateari buruzko 37/2003 Legean xedatutakoaren arabera, soinu-erispideak urigintzako plangintzan kontuan hartzen laguntzea udalei.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. |
| Lankidetzak | Udalak. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen Saila. Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Laguntza jaso eta, gitxienez, LZPetako 2 edo 3 iraunkortasun-erispide kontuan hartu dabezan udalen %. |

4.3.6 6. KONPROMISOA - Mobikortasun hobea eta zirkulazinoaren murrizketa

Jakin badakigu garraioaren, osasunaren eta ingurumenaren arteko loturea estu-estua dana, eta mobikortasunerako eredu iraunkorrak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu dogu.

Sailen arteko lankidetzaz-hitzarmenak, Bizkaiko mobikortasun iraunkorraren aldeko sinergiak bateratzeko.

Agiri-agirikoak danez, mobikortasuna areagotu egin da gure lurraldean, personen zein merkantzien joan-etorriari jagokenez. Halanda be, azpiegituren eskeintza neurri berean handitzeko mugen ondorioz (errepide-mailakoak dira, batez be), egoera ez-iraunkorrari aurre egin behar deusagu. Hori guztiori dala eta, motordun mobikortasun pribadua gitxitu behar dogu irisgarritasunaren premiei erantzuteko orduan, eta ez daukagu inondik inora sustatzerik jente gitxi daren ibilgailu pribaduen erabilera ez-iraunkorra. Alde horretatik, ingurumena errespetetan daben garraioak erabili behar doguz, batik bat.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eretxiz, funtsezkoa da inplikautako foru-sailen arteko lankidetzak konpromisoa bultzatzea, plangintza egitean, lurraldea antolatzean eta azpiegituretako proiektuak betearazotean. Lurzoruan egindako partaidetza handiek lurraldea egituratzen dabe, eta eragin zuzena daukie ingurumenean zein erkidegoaren garapen ekonomiko eta sozialean.

Ikuspegi hori aintzat hartuta, foru-administrazioak eskariaren kudeaketa iraunkorraren aldeko apustua egin behar dau.

Zentzun horretan, Garraioaren Liburu Zurian²⁶ eta EAEko Garraio Iraunkorrerako Plan Zuzentzailean²⁷ xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak plangintza bera sustatzen dau. Bertan, gainera, honako jarraibide honeek sustatu behar dira, arlokako gainerako politikakaz behar dan moduan koordinata:

- ✓ Motordun bidaien eragina eta erabilera desegokia murriztea.
- ✓ Hain kutsagarriak ez diran garraibideen aldeko suspergarriak sortzea.
- ✓ Aukera bideragarri barriak eskeintzea, era guztietako kalidadeko talde-garraibideen bitartez.
- ✓ Merkantzien garraioa barriro egituratzea, eragin kaltegarriari aurre egiteko eta eraginkortasun ekonomikoa hobetzeko.
- ✓ Informazio eta telekomunikazio sistema barriak ezartea, garraio-sistemearen eraginkortasuna hobetzeko.

²⁶ Europako Batzordeak 2001eko irailaren 12an onartu eban Garraioaren Liburu Zuria.

²⁷ Eusko Jaurlaritzak 2002ko zemendiaren 19an onartu eban. Bertan, Euskadiko Garraio Politika Bateratua ezarten da, 2002-2012 epeari begira.

- ✓ Ibilgailu pribadua ez beste garraiobide batzuk sustatzea.

6. KONPROMISOA: MOBIKORTASUN HOBEA ETA ZIRKULAZINOAREN MURRIZKETA

| | |
|---|---|
| 6.16. Ierro estrategikoa | MOBIKORTASUN IRAUNKORRAREN SUSTAPENA |
| Helburu nagusia | Errepide bidezko zirkulazinoak ingurumenean eragindako ondorio kaltegarriak gixitzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 6.16.1 | Bizikletearen erabilera bultzatzea aukerako garraiobide moduan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Plan Zuzentzaile Ziklagarria 2003-2016 betearazotea. Bizkaia Bizikletaz. ■ Bizikletearen erabilerak hezkuntza zein lan arloan daukazan abantailen inguruan kontzientzietea biztanleak. ■ Euskadi Txirrindularitza Fundazioagaz hitzarmenak sinatzea, uritarren eta ikasleen kontzientziarazarako eta gai teknikoei buruzko aholkularitzarako jarduerak atontzeko. ■ Enpresetan saiakuntza eredugarria egitea, bizikletea beharginentzako garraiobide moduan sustatzeko. ■ Bizikletarako ibilbideak garatzea, intermodalidadea sustatzeko eta naturaz zein ondare arkitektonikoaz gozetako. ■ Bizikleta bidezko garraioaren eskaria aztertzea, eskeintza zehaztu ahal izateko. ■ Bizikletentzako bide barriak eregitea foru-errepideetan. ■ Bizikletentzako bideak txertatzea ardatz handietan. ■ Bizikletea erabilteko bideen udal-eraikuntza bultzatzea. | |
| Erantzukizuna | Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Lankidetzak | Ingurumen Saila. Urigintza eta Udal Harremanen Saila. Udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Guztizkoa kontuan hartuta, bizikletaz egindako joan-etorrien %. |

6.16.2

Metropolialdeetako barruko ibilbideetan jente gitxi daroan garraio pribaduaren erabilera zigortzea

JARDUKETAK

- Uriko bertako eta uri arteko bideak oinezkoentzat, bizikletentzat eta garraio publikoarentzat erabiliko diran aztertzea.
- Uriko zirkulazinoa barriro antolatzen laguntzea udalei, metropolialdeetako barruko ibilbideetan jente gitxi daroan garraio pribaduaren erabilera zigortzeko eta garraio publikoaren zein beste garraiobide batzuen erabilera suspertzeko.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Urigintza eta Udal Harremanen Saila. Herri Lan eta Garraio Saila. Ingurumen Saila. |
| Lankidetzatza | Udalak |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Guztizkoa kontuan hartuta, ibilgailu pribaduan egindako joan-etorrien %. Garraiobide iraunkoragoen erabileraren gorakada. |

6.16.3

Garraio publikoaren erabilera handitzea

JARDUKETAK

- Garraio publikorako aukeren eta sistemen arteko lotuneak hobetzea, eskariari erantzun ahal izateko.
- Intermodalidadea kontuan hartzen daben egitasmoak bultzatzea.
- Azpiegituren erabileraren tarifa-printzipioetara hurreratzea, garraioaren kanpoko kostuak kontuan hartuta.
- Errepideetako azpiegitura barriertarako inbersinoen aldean, garraiobide iraunkoragoetarako inbersino publikoen ehunekoa handitzea.
- Sentsibilizazio-kanpainak atontzea, uritarren mobikortasun-ohiturak hobetzeko.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Lankidetzatza | BIZKAIBUS, METRO Bilbao, Euskotren, RENFE, FEVE, Euskotran, udalak, Garraio Partzuergoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Guztizkoa kontuan hartuta, garraio publikoan egindako joan-etorrien %. |

6.16.4

Mobikortasun iraunkorra sustatzea urigintzako plangintzaren bitartez

JARDUKETAK

- Mobikortasunaren ikuspegitik, urigintzako plangintzarako tresnen bideragarritasun teknikoa egiaztatzea.
- Lurraldeko zati-planak idazteko orduan, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta Urigintza eta Udal Harremanen Sailaren arteko lankidetzak bultzatzea, mobikortasun iraunkorraren erispideak kontuan hartu dagiezan.
- Mobikortasunari buruzko azterlan integralak egitea udalentsat, oinezkoentzako bideak, bizikletearen erabilera, norabide-aldaketak, uri-inguruko aparkalekuak eta garraio publikoaren erabilera bultzatzeko.
- Legearen arabera aukera guztiak aztertzea, zehaztutako mailatik gorako biztanle-kopurua daukien udalei mobikortasunaren gaineko eraginaren azterketa egiteko eskatu ahal izateko, garraio-premiak daukiezan gune barrien plangintza garatzean, erabilera-mota, intensitatea eta errepide-sarearen asetasun-maila kontuan hartuta.
- Legearen arabera aukera guztiak aztertzea, udalei Mobikortasun Plana egiteko eskatu ahal izateko, egoeraren diagnostikoa egin, hobekuntza-arloak zehaztu eta hobekuntzon emoitzak ebaluatu ostean.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Lankidetzak | Ingurumen Saila. Urigintza eta Udal Harremanen Saila. Udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Iraunkortasunaren erispideak kontuan hartuta mobikortasun integralerako egindako udal-planen kopurua. |

4.3.7 7. KONPROMISOA - Osasunerako toki-ekintza

Uritarren osasuna eta ondoizatea suspertzeko eta babesteko konpromisoa hartu dogu.

Bizkaiko Lurralde Historikorako garapen iraunkorra jadesteko, bertan bizi diran uritarren osasuna eta ondoizatea babesteko eta jagoteko zerbitzuak imini behar dira abian.

Osasun publikorako arriskuen aurrezaintza: zaratea eta industria-arloko larrialdiak.

Azpiegituren bidez garraiatutako personeren eta merkantzien zirkulazioak, jarduera ekonomikoak eta bertako bizilagunen eguneroko zereginen eragindako soinukutsaduraren ondorioak eta ondorenak nabariak dira urri-inguruneetan, eta eragin zuzena daukie uritarren bizi-kalidatean. Hori guztiari dala eta, zaratearen ondorioak gaitzeko erabilitako neurriak ondoizaterako ekarpen zuzenak dira gure herri eta urietan.

Foru-eskumeneren barruan, industria-arloko larrialdietan suteak amatetako zerbitzuek erantzuteko daukien gaitasuna hobetzea da hobekuntza-arloetako bat. Ekarpen handia da, kutsadura aurrezaintzeko eta istripuek edo ezbehar larriek segurtasunean nahiz osasun publikoan eragindako ondorio kaltegarrien arriskua gaitzeko.

| | |
|--|---|
| 7.17. Ierro estrategikoa | BIZTANLEEN BIZI-KALIDADEAREN BABESA ETA HOBEKUNTZA ZARATEAREN AURREAN |
| Helburu nagusia | Zaratearen eraginpean dagozan biztanleen kopurua murriztea. |
| Helburu bereziak: | |
| 7.17.1 | Errepide bidezko zirkulazinoak sortutako soinu-maila handien eraginpean dagozan biztanleen kopurua murriztea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Barruko adostasuna jadestea zaratea neurtzeko tresna egokiei buruz, hasiera batean lortu beharreko helburuei buruz eta euren kostuei buruz. ■ Zaratearen aurkako Plana abian imintea eta Zaratea Kudeatzeko Sistema garatzea. Planaren azken fasean, egoera gatazkatsuei aurre egiteko Ekintza Plana prestatu da. ■ Egunero 4.000tik gora ibilgailuko intensitatea daukan errepide-sarearen soinu-diagnostikoa egitea, eremu gatazkatsuak antzemotea eta neurri zuzentzaileak zehaztea. ■ Helburu bideragarriak daukazan Aurrezaintza eta Hobekuntza Plana ezartea, egindako jarduketak eta bihar-egunean egin beharreko jarduketak bereiztea eta igorletik hartzaileentzako behin-behineko iragaitza dagoala kontuan hartzea. ■ Administrazioari eta jenteari informazioa emateko egitasmoa ezartea. ■ Errepideak diseinetan kontuan hartu beharreko soinu-gomendioen gida (jarduketen dekalogo) egitea eta Herri Lan eta Garraio Sailak Bizkaian erabilitako bidezorak aztertzea. | |
| Erantzukizuna | Herri Lan eta Garraio Sails. |
| Lankidetzak | Ingurumen Sails. Udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Errepide bidezko zirkulazinoaren ondorioz, OMEk gomendatutakoak baino soinu-maila handiagoen eraginpean dagozan biztanleak. |

| | |
|--|--|
| 7.17.2 | Udalei zaratearen aurka egiten laguntzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingurumen Sailak Uriko Zaratea Kudeatzeko egindako Sistemea udalen esku imintea. | |
| Erantzukizuna | Ingurumen Saila. |
| Lankidetzta | Udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | UZKSI zaratea kudeatzeko tresna moduan darabilen udalerrien kopurua. |

7. KONPROMISOA: OSASUNERAKO TOKI-EKINTZA

| | |
|--|---|
| 7.18. Ierro estrategikoa | SUTEAK AMATETAKO ZERBITZUEN KOORDINAZINOA INDUSTRIA-ARLOKO ENPRESAKAZ |
| Helburu nagusia | Industria-arloko instalazioetako larrialdiei aurre egiteko gaitasuna hobetzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 7.18.1 | Larrialdiren bat jazoteko arriskua sektore kimikoko zer enpresatan dagoan jakitea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Enpresak aukeratzea, ezbehar larrietarako daukien arriskua zelakoa dan, non dagozan eta enpresan bertan garatutako aurrezaintza-kudeaketa zelakoa dan kontuan hartuta. ■ Aukeratutako instalazioen ezaugarriak zelakoak diran jakitea (planoak, hornitutako sute-harguneak, produktu kimikoak), larrialdietan suteak amatetako zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko. ■ Instalazioen sarreran, sistema estankoa imintea. Bertan, suteak amatetako zerbitzuek eskatutako informazioa egongo da eskuragarri. ■ Egokia izan ezker, suteak amatetako zerbitzuak industria-arloko instalazioetara joatea, zelakoak diran jakiteko. ■ Segurtasunari buruzko jardunaldi tematikoak antolatzea, suteak amatetako zerbitzuakaz, AVEQegaz eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdien Atentzinorako Zuzendaritzagaz batera. | |
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. |
| Lankidetzta | AVEQ, Eusko Jaurlaritza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Koordinazio-egitasmora atxikitako enpresa kimikoen kopurua. |

7.18.2

Beste sektore batzuetan larrialdiren bat jazoteko arriskuan dagozan enpresetako instalazioak zelakoak diran jakitea

JARDUKETAK

- Sektore kimikoan garatutako esperientzia honako sektore honeetako enpresetara hedatzea: metalgintza, eraikuntza, arte grafikoak, emakidadunak, automobilgintza, instalatzaileak, artatzaileak, besteak beste.
- Enpresak aukeratzea, ezbehar larrietarako daukien arriskua zelakoa dan, non dagozan eta enpresan bertan garatutako aurrezaintza-kudeaketa zelakoa dan kontuan hartuta.
- Aukeratutako instalazioen ezaugarriak zelakoak diran jakitea (planoak, hornitutako sute-harguneak, produktu kimikoak), larrialdietan suteak amatetako zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko.
- Instalazioen sarreran, sistema estankoa imintea. Bertan, suteak amatetako zerbitzuek eskatutako informazioa egongo da eskuragarri.
- Egokia izan ezker, suteak amatetako zerbitzuak industria-arloko instalazioetara joatea, zelakoak diran jakiteko.
- Segurtasunari buruzko jardunaldi tematikoak antolatzea, suteak amatetako zerbitzuakaz, arlokako alkarteakaz eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdien Atentzinorako Zuzendaritzagaz batera.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. |
| Lankidetzak | FVEM - Bizkaiko Metalgintzako Enpresen Federazioa, Eusko Jaurlaritza, enpresarien beste alkarte batzuk. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Suteak amatetako zerbitzuakaz eta salbamentu-zerbitzuakaz koordinetako proiektuetara atxikitako enpresen kopurua. |

Edadekoentzako bizi-kalidatea, ingurumeneko jardueretan parte hartuta.

Edadekoek premia handiak daukiez osasun eta gizarte zerbitzuen erabileran. Edadekoen bizi-kalidatea bermatzeko, euren aisialdia bultzatu beharra dago. Alde horretatik, gizarte-ondoizatearen eta ingurumen-babesaren arloen arteko lankidetzak ei da gai horretan esku hartzeko modu egokienetakoa, kontzientziarazina sustatzen dalako eta, batez be, persona horreek bete-betean parte hartzen dabelako ingurunearen babesagaz zerikusia daukien jardueretan. Hain zuzen be, edadekoen hezkuntza-bokazioaren balio erantsia da helburu nagusia, euren kontzientziarazina eragin itzela euki daikealako inguruko personetan.

| | |
|---|---|
| 7.19. Ierro estrategikoa | EDADEKOEN ONDOIZATEAREN SUSTAPENA |
| Helburu nagusia | Edadekoen aisialdia bultzatzea ingurumenaren babesagaz zerikusia daukien jardueren bitartez. |
| Helburu bereziak: | |
| 7.19.1 | Edadekoak ingurumenaren babesaren eta garapen iraunkorraren inguruan kontzientzietan laguntzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Ekintza Sailaren logistikea Ingurumen Sailaren esku imintea, ingurumenaren babesaren inguruan sentsibilizetako eta kontzientzietako kanpainak edadekoengana iritsi daitezan. ■ Gizarte Ekintza Sailaren eta Ingurumen Sailaren arteko lankidetzaren sustatzea, zabortegetara, HUAetara, EUTetara edo antzeko instalazioetara ikustaldi gidatuak antolatzeko. | |
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Ur-partzuergoak, udalak eta mankomunidadeak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero kanpainetan edo jardueretan parte hartzen daben edadekoen kopurua. |
| 7.19.2 | Edadekoen inplikazioa eta erabateko partaidetza sustatzea ingurumenaren babesagaz zerikusia daukien jardueretan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingurumen-arloko boluntario aditu baizen prestatuak sustatzea edadekoen alkartean. ■ Foru-sailak Gizarte Ekintza Sailagaz koordinatzea, edadekoek ingurumenagaz zerikusia daukien kanpainen eta jardueren antolaketan bete-betean parte hartu dagien (zugatxaren eguna, uraren eguna, Plentziako ingurumen-gelea, ingurumen-autobusa...). | |
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Nekazaritza Saila. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero ingurumeneko borondatezko jardueretan bete-betean parte hartzen daben edadekoen kopurua. |

Elikaduraren kontrola eta zaintza.

Elikadura-alertarako sistemen diseinua eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren kontrola eta eten bako zaintza jarduketa-arloak dira, eta eragin zuzena daukie osasun publikoaren babesean, biztanleentzako arriskuak kontrolau eta gitxitu egiten dabezalako²⁸.

7. KONPROMISOA: OSASUNERAKO TOKI-EKINTZA

| | |
|---|---|
| 7.20. lerro estrategikoa | NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO EKOIZPENEN KALIDADE SANITARIOAREN ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KALIDADEAREN HOBEKUNTZA |
| Helburu nagusia | Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuek osasunerako daukiezan arriskuak saihestea. |
| Helburu bereziak: | |
| 7.20.1 | Ikertutako landare-jatorriko produktuen %99n, plagizida-hondakinen mailak arauzko mailak (ARM) baino txikiagoak izatea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Nekazaritzako Ustiategiak Kontroletako eta Ikuskatzeko Egitasmoa ezartea eta abian imintea. ■ Ustiategietako jaubeentzako prestakuntza-ekintzak atontzea. ■ Zehaztutako helburua jadesteko moduko produktu fitosanitario barriak erabilteko neurriak ezartea. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Ekoizleen alkarteak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | ARM baino hondakin gehiago daukiezan elikagaien %. |

²⁸ Holan, bada, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren helburua beteten da, elikaduraren segurtasuna bermatzen dalako.

| | |
|--|---|
| 7.20.2 | Ikertutako animalia-jatorriko produktuen %99,8n, albaitaritzako tratamenduekiko substantzien hondakinen mailak arauzko mailak (ARM) baino txikiagoak izatea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Abeltzaintzako Ustiategiak Kontroletako eta Ikuskatzeko Egitasmoa ezartea eta abian imintea. ■ Ustiategietako jaubeentzako prestakuntza-ekintzak atontzea. ■ Albaitaritzako tratamenduetarako produktu barriak erabilteko neurriak ezartea. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Ekoizleen alkarteak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | ARM baino hondakin gehiago daukiezan elikagaien %. |
| 7.20.3 | Ikertutako animalia-jatorriko produktuen %100en, mikrobioen aurkakoen mailak arauzko mailak (ARM) baino txikiagoak izatea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Abeltzaintzako Ustiategiak Kontroletako eta Ikuskatzeko Egitasmoa ezartea eta abian imintea. ■ Animalia-jatorriko produktuetan antibiotikoak gitxitzeko egitasmoak garatzea. ■ Ustiategietako jaubeentzako prestakuntza-ekintzak atontzea, albaitaritzako sendagaiak behar dan moduan erabilteko eta kudeatzeko, batez be. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Ekoizleen alkarteak. Eusko Jaurlaritza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | ARM baino hondakin gehiago daukiezan elikagaien %. |

4.3.8 8. KONPROMISOA - Tokian tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra

Ingurumenari kalterik egin barik lana sustatuko dauen tokian tokiko ekonomia bizia sortzeko eta ziurtatzeko konpromisoa hartu dogu.

Landa-garapen iraunkorraren sustapena.

Urte batzuetatik hona, Bizkaiko landa-inguruneko biztanleen kopurua jaitsi egin da, bertan aukerarik ez dagoalako eta zerbitzu gitxi eskeintzen dauzelako. Bizkaiko Lurralde Historikoko garapen iraunkorra jadesteko, landa-ingurunearen eta uri-ingurunearen garapena orekatua izan behar da.

Landa-eremuak ez dira nekazaritzarako edo abeltzaintzarako gunek apartak bakarrik, zeresan handia daukielako aisialdiaz gozetako eta ingurumena babesteko orduan. Hori dala eta, 2000-2006ko Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorrerako Planaren Egitasmoan²⁹, Bizkaiko Foru Aldundiak nekazaritzako ustiategiak hobetu gura dauz, titularrei gitxieneko diru-sarrerak bermatzeko; lurralde, ekonomia eta gizarte arloan landa-inguruneko biztanleen kopuruari eusteko moduko baldintzak garatzeko; eta landa-ingurumenari atentzino berezia eskeintzeko.

Bizkaiko landa-eremuak atentzino berezia behar dau, urien eta metropolialdeen hazkuntzari eta zabalkuntzari aurre egin behar deuselako. Hain zuzen be, eraikuntza-motak, biztanleen ezaugarri sozioekonomikoak eta zerbitzu publikoen eskaria ikaragarri aldatzen dira. Landa-erkidegoentzako garapen iraunkorra lortu gura izan ezker, behar besteko neurriak hartu behar dira, biztanleen kopurua finkatzeko, lana sortzeko eta merkaduak tokiko zein eskualdeko produktuetarantz bideratzeko.

²⁹ Europako Batzordearen erabagiaren bitartez onartu zan [COM (2000) 2930 azkena, 2000ko urriaren 5koa]. Europako Batzordearen erabagiaren bitartez aldatu zan [COM (2004) 5050 azkena, 2004ko abenduaren 13koa].

8. KONPROMISOA: TOKIAN TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA

| | |
|--|--|
| 8.21. Ierro estrategikoa | LANDA-GARAPEN IRAUNKORREN SUSTAPENA |
| Helburu nagusia | Landa-eremuetako jarduera ekonomikoa bultzatzea, bertako biztanleen kopuruari eustea eta ingurumena babestea. |
| Helburu bereziak: | |
| 8.21.1 | Nekazaritzako ustiategien lehiakortasuna hobetzea, titularrei gitxieneko diru-sarrerak bermatzeko, beti be nekazaritzako jarduera egokiak errespetetan badabez (ekobaldintzagarritasuna) |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Nekazaritzako ustiategietan inbertiduteko laguntzen egitasmoak ezartea. ■ Prestakuntzarako laguntzak ezartea, nekazarien prestakuntza eta beharrerako gaitasuna handitzeko eta ingurumenaren babesagaz bat datozen jardueren inguruan prestatuko eta sentsibilizetako. ■ Edadekoen nekazaritza-jarduera alde zuzenetik eteteko prozesua eta nekazari gazteak beharrezko hasteko prozesua suspertzea. Dana dala, behar dan moduan egingo da, nekazaritzako ustiategietako titularren belaunaldi-aldaketa gitxi-gitxika gauzatzeko. ■ Lurren hobekuntza bultzatzea. Horretarako, drainaketak hobetzea, mekanizazioa eta laborantza eragozten edo zailtzen dabezan oztupoak desagerrarazotea, lurretarako sarbideak egokitzea edo landa-itxierak imintea. ■ Lur-zatien pilaketa sustatzea, nekazaritzako ustiategien egiturak egokitzeko. ■ Landa-bideak eregitea eta hobetzea, nekazarien bizi-kalidatea hobetzeko asmotan. ■ Nekazaritzako aseguruak kontratatuko dirulaguntzak eskeintzea. ■ Nekazaritzako produktuak eraldatzeko eta merkaduratzeko prozesua hobetzea. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, nekazaritza-ustiategietako titularrak, NBBEF (FEOGA), arlokako alkarteak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Nekazaritzako ustiategien batez besteko diru-sarreraren gorakada. |

8.21.2

Lurralde, ekonomia eta gizarte arloan landa-biztanleen kopuruari eusteko baldintzak garatzea

JARDUKETAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko 1994-2030eko Basogintza Planaren arabera, basogintzarako dirulaguntzak ezartea, beti be onuradunek basoen kudeaketa iraunkorrari buruzko arauak errespetetan badabez.
- Ekonomiarako eta landa-herrietarako oinarrizko hornikuntza-zerbitzuak imintea.
- Nekazaritzako lurretan basoak sartzeko eta iraunkortasunez kudeatzeko prozesua suspertzea.
- Ordezkatzeko eta nekazaritzako ustiategiak kudeatzen laguntzeko zerbitzuak abian imintea, nekazarien bizi-baldintzak hobetzeko.
- Landa-turismoa eta artisautza sustatzea.
- Herriak zaharbarritzea eta garatzea eta landa-ondarea artatzea.
- Nekazaritzako eta antzeko arloetako jarduerak dibersifikatea eta nekazaritzako zein abeltzaintzako beste ekoizpen-mota batzuk bilatzea.
- Gure mendietako ondare arkeologikoa berreskuratzea eta artatzea.
- Basogintzako azpiegiturak iminteko laguntzak emotea jaube pribaduei.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzta | Nekazaritza-ustiategietako titularrak, NBBEF (FEOGA). |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Landa-inguruneko biztanleen kopurua urteko. |

8.21.3

Landa-eremuetako ingurumena, paisaia eta ondare naturala jagotea eta hobetzea, nekazaritza zein ingurumen arloko neurrien bitartez

JARDUKETAK

- Konpentsetako kalte-ordainak emotea egoera txarrean dagozan eremuetako nekazariari.
- Laguntzak ezartea, nekazaritza eta ingurumen arloko neurriak hartzeko.
- Laguntzak ezartea, basoen eginkizun ekologikoa eta babeslea bermatzeko, non dagozan kokatuta eta zelako ezaugarriak daukiezan kontuan hartuta ez daukielako errentagarritasun ekonomiko zuzenik.
- Ingurumena babestea, paisaia eta nekazaritzako zein basogintzako ekonomia jagotea eta animalien ondoizatea hobetzea.
- Makina txikiak erosteko laguntzak emotea, basogintzako beharrak garatzeko.
- Nekazaritza ekologikoa, ekoizpen integratua eta kalidade-ziurtagiriak bultzatzea.
- Bertoko arrazak babesteko eta sustatzeko egitasmoak abian imintea.
- Mendiko bazkalekuak behar dan moduan erabiltea eta kudeatzea honako neurri honeen bitartez: bazkaleku publikoen erabilera arautzeko ordenantzen ezarpena, abeltzainen zamen arauketa, espezien araberako erroldak eta neguko hutsaldi sanitarioen ezarpena.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Nekazaritza-ustiattegietako titularrak, NBBEF (FEOGA). |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Emondako dirulaguntzen kopurua eta zenbatekoa. |

Sustapen eta barrikuntza ekonomikoak, lan-zoko barriak sortzeko eta gazteen enplegarritasuna handitzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak lana eta enpresa barriak sortzeko konpromiso zuzena hartu dau, eta, horretarako, sustatzaile barriak zein lanerako prestakuntza bultzatuko dauz. Lana sustatzeko orduan, jarduketok erakunde-jarduera egokien³⁰ erispideak (erakundeen gizarte-erantzukizuna) eta ingurumen-arloko jarduera egokiak kontuan hartzen badabenez, iraunkortasun globala eta ekonomia iraunkorra suspertuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Era berean, egoera txarrean dagozan taldeak laneratzea lehentasunezkoa izan behar da, gizarte-bazterketaren aurkako borroka sendotzeko. Horretarako, gainera, oso ondo koordinatuta egon beharko dira Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila, Lan eta Trebakuntza Saila eta Gizarte Ekintza Saila.

³⁰ Ikus "Enpresen gizarte-erantzukizunerako egitasmo europarraren sustapena" Liburu Berdea [COM (2001) 366 azkena] eta Europako Batzordearen "Corporate social policy; Nacional Public Policies in the European Union" agiria.

Bestetik, herrialdeko ekonomiaren lehiakortasunak lotura zuzena dauka barrikuntza teknologikoagaz. Hori dala eta, enpresa teknologikoen sorrera sustatuko da, eta ikertzaileei lagunduko jake. Horrezaz gainera, ingurumen-arloko teknologiak ekoitzi ezker, garapen iraunkorrak aurrera egingo dau erabat.

8. KONPROMISOA: TOKIAN TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA

| | |
|---|---|
| 8.22. lerro estrategikoa | BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO IKERKETA-AZPIEGITUREN SUSTAPENA |
| Helburu nagusia | Ingurumenaren kudeaketa iraunkorrerako garapen teknologikoa sustatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 8.22.1 | Barrikuntzako eragileei laguntzea ingurumeneko teknologien arloan |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingurumeneko teknologien arloan ikertzeko eta garatzeko asmotan (berziklapena, garraio adimenduna, ingurunea errespetetan daben materialak...), behar besteko laguntzak ezartea zentro teknologikoentzat, ikastetxeentzat, fundazioentzat, I+G+Bko arlokako alkarteentzat eta enpresetako zein unibersidadeetako I+G unidateentzat. | |
| Erantzukizuna | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Lankidetzatza | Zentro teknologikoak; unibersidadea; azterketa, analisi eta I+G entidadeak; Eusko Jaurjaritza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak barrikuntzako eragileei laguntzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |
| 8.22.2 | Teknologia iraunkorrak ekoizten dabezan enpresak sortzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Ingurumenaren kudeaketa iraunkorrari begira (berziklapena, garraio adimenduna, ingurunea errespetetan daben materialak...), behar besteko laguntzak ezartea ikerketaren eta garapen teknologikoaren arloan behar egiten daben enpresentzat. | |
| Erantzukizuna | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Lankidetzatza | Eusko Jaurjaritza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Laguntza honeen bidez sortu eta teknologia iraunkorrak ekoizten dabezan enpresen urteko hazkuntza garbia. |

8. KONPROMISOA: TOKIAN TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA

| | |
|--|--|
| 8.23. lerro estrategikoa | ERAKUNDEEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNAREN (EGEren) FILOSOFIAREN SUSTAPENA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ENPRESEN ARTEAN |
| Helburu nagusia | Enpresako jardueretan gizarte eta ingurumen arloko kezka kontuan hartzean, enpresaren kultura aldatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 8.23.1 | Erakundeen Gizarte Erantzukizuna (EGE) bultzatzeko egitasmoak garatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Enpresak eta beste talde interesgarri batzuk sentsibilizatea eta informatea. ■ Bizkaiko EGE web orria garatzea. ■ Lan-taldea EGEren arloan prestetea. ■ Enpresa-taldea sortzea, Bizkaiko enpresak erakartzeko eta EGE bultzatzeko. ■ EGEren ezagutza zabaltzea enpresen artean. ■ Jarduera egokien trukea sustatzea. ■ Gizarteari begira arduratsua dan kudeaketa ezartea enpresetan. ■ Genero-ikuspegia Erakundeen Gizarte Erantzukizuna kudeatzeko tresnetan kontuan hartzea. | |
| Erantzukizuna | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | LANTIK, enpresak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Zuzendaritzak harpidetutako EGE politikadun enpresen kopurua. |

4.3.9 9. KONPROMISOA - Bardintasuna eta justizia soziala

Erkidego bateratzaileak eta solidarioak bermatzeko konpromisoa hartu dogu.

Danok dakigunez, egoera txarrean dagozan taldeak oso sentikorrek dira ingurumen zein gizarte arloko arazoan aurrean, eta ez daukie arazok konpontzeko besteko gaitasunik. Hori dala eta, Bizkaiko Foru Aldundiak oinarritzko gizarte-zerbitzuak³¹ eta prestakuntzarako zein lanerako egitasmoak³² eskeintzen dauz.

Genero politikea, gizarterapenari eta gizonen zein andren arteko bardintasunari begira.

Bizkaiko Foru Aldundiak apustu sendoa egin dau, Europako premisakaz³³ bat datorren genero-politikea garatzeko eta andrei aukera-bardintasuna eskeintzeko, lanean, gizarte-zerbitzuetan eta kultura zein kirol arloko partaidetzan³⁴, hain zuzen be.

³¹ Ikus Gizarte Ekintza Sailaren Plan Estrategikoa 2004.

³² Prestakuntza sustatzeko Trebatzera egitasmoak gizarte-alderdiak hartzen dauz kontuan, andren eta gizonen arteko aukera-bardintasuna sustatzean eta egoera txarrean dagozan taldeak gizarteratzean. Lanera egitasmoak, ostera, laneratzeko zailtasunak daukiezan lanbakoak gizarteratzen dauz, eta andren kontratazino mugabakoa suspertzen dau. Ikus Kontseiluak 2003ko garagarriaren 22an hartutako erabagia, estatu kideetako lan-politiketarako jarraibideei buruzkoa (2003/578/EE). Honako honeek dira helburuak: emonkortasuna, enplegu betea, biztanle guztien gizarterapena eta andren zein gizonen arteko aukera-bardintasuna.

³³ Ikus Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari bialdutako "Gizonen eta Andren arteko Bardintasunari buruzko Egitasmo Estrategia Bateraturantz, 2001-2005" jakinarazpena [COM (2000) 335 azkena].

³⁴ Ikus Bizkaiko Andren eta Gizonen arteko Aukera Bardintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Plana. 2004-2007.

| | |
|--|---|
| 9.24. lerro estrategikoa | BIZKAIKO GENERO-POLITIKEAREN GARAPENA |
| Helburu nagusia | Andren eta gizonen arteko aukera-bardintasuna sustatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 9.24.1 | Gizartea sentsibilizatea eta andrek aukera-bardintasanaren arloan bizi daberen egoera zelakoa dan jakitea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Genero Indarkeriaren Behatokia bultzatzea Bizkaian. ■ Bizkaiko andren egoerari buruzko azterlan bereziak egiten laguntzea. ■ Ekonomiaren eta lanaren arloan andren egoera zelakoa dan jakitea. ■ Andrek kiroletan daukien partaidetza eskasean esku hartzen daberen faktoreak sakon aztertzea. ■ Gizartea kontzientzietea, eta, horretarako, jardunaldi tematikoak antolatzea, publikidadeko iragarkiak hedatzea eta Parekatuz Sarea bultzatzea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. Gizarte Ekintza Saila. |
| Lankidetzak | Aldundiko sail guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Sentsibilizautako lagunen kopurua. |

9.24.2

Gizarte-eragileen ekintza sustatzea andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren alde

JARDUKETAK

- Irabazi-asmoko andra-alkarteentzako dirulaguntzak ezartea, beti be Ekintza Positiborako Planagaz eta Andren eta Gizonen arteko Aukera Bardintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Planagaz bat datozen proiektuak aurkezten badabez.
- Aurreko dirulaguntzetan lehentasuna emotea andren beste alkarte batzuek, irabazi-asmoko erakundeak, gizarte-eragileak edo udalak garatutako lankidetzak kontuan hartzen dabilen proiektuei.
- Aurreko dirulaguntzetan lehentasuna emotea erantzukizun personalak, familiakoak eta profesionalak bateratzeko proiektuei eta honako arlo honek helburu daukiezan proiektuei: lana eta prestakuntza, andren eskubideak, osasuna, bizi-kalitatea, ingurumena, urigintza, garraioa eta gizarte zein kultura arloa.
- Aurreko dirulaguntzetan lehentasuna emotea alargunak, landa-ingurune andrak, gazteak edo lanbakoak helburu daukiezan proiektuei.
- Gizonek aukera-bardintasunaren garapenean parte hartzea.
- Andren alkarte barriak eratzeko eta abian iminteko laguntzak ezartea.
- Andren eta Gizonen arteko Bardintasunerako Foroa sustatzea.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetzak | Emakunde, udalak, unibersidadea, alkarteak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak gizarte-eragileek andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren alde egindako ekintza bultzatzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

| | |
|--|--|
| 9.24.3 | Andrak aukera-bardintasunean laneratzeko prozesua sustatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Lan eta Trebakuntza Sailak, Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak eta Nekazaritza Sailak andrentzako laguntza sendotzea. ■ Erakunde eta sail arteko egitasmoak garatzea, gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskua daukien andrak laneratzeko. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa Lan eta Trebakuntza Saila. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzatza | Beste sail eta administrazio batzuk. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Gizonen aldean, andrek sektoreka daukien langabezia-diferentziala %. |
| 9.24.4 | Andren osasuna sustatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Genero-ikuspegitik, lehendik dagozan gizarte-baliabideak handitzea eta egokitzea, egoera bereziei aurre egin ahal izateko. ■ Genero-ikuspegia kontuan hartzea gizartean esku hartzeko egitasmo guztietan. | |
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. |
| Lankidetzatza | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak andren osasuna sustatzeko erabilitako aurrekontua. |

9.24.5

Andren agerpena sustatzea gizarte eta kultura arloko jardueretan

JARDUKETAK

- Andren partaidetza bultzatzea aisialdi eta kultura arloko jardueretan.
- Andrek kiroletako maila guztietan parte hartzeko baldintzak sustatzea.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa, kultura eta kirol arloko alkarteak, udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak andrek gizarte eta kirol arloko jardueretan daukien agerpena sustatzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

Egoera txarragoan dagozan taldeentzako oinarrizko gizarte-zerbitzuak.

Gizarte-ondoizateko politikak Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleen eta oso talde zehatzen txirotasuna eta gizarte-bazterketa aurrezaintzea eta egoera horreei aurre egitea daukie helburu.

Era berean, politika bateratzaile horreen helburuaren arabera, menpetasuna daukien personak ahal danik eta denpora gehien egon behar dira euren ingurunean, bizi-aukera aparta da-eta. Hori dala eta, ahal danik eta gehien atzeratu behar da erakunderen batean sartzeko erabagia, beti be euren bizi-kalidadearen mailak behar bestekoak badira.

Hain zuzen be, lanpostuak sortzen dira, erkidegoaren iraunkortasunari eusteko eta langabezia-tasa murrizteko, baina horrezaz gainera, gizarte-atentzinoa eskeintzen jake Bizkaiko Lurralde Historikoan egoera txarrean dagozan taldeei (edadekoei, elbarriei, umeei). Barruko eten bako hausnarketa egindakoa, iraunkortasunaren erispideak gizarte-zerbitzuen diseinuan, kudeaketan eta administrazioan hartuko dira kontuan.

| | |
|--|---|
| 9.25. lerro estrategikoa | GIZARTEAN EGOERA TXARRAGOAN DAGOZAN TALDEENTZAKO ATENTZINOA |
| Helburu nagusia | Erkidego bateratzailea eta solidarioa jadestea. |
| Helburu bereziak: | |
| 9.25.1 | Menpetasuna daukien edadekoei emondako asistentzia hobetzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Edadekoentzako egoitzen eta eguneko zentroen sare osoa antolatzea, eta, bertan, honako honeek eskeintzea: banan-banako asistentzia integrala, osasun-zainketak, gizarte-atentzinoa, gizarte eta kultura arloko jarduerak eta entretenimentuak. ■ Bakarrik bizi edo egun osoan zehar ia-ia bakarrik dagozan edadekoentzako teleasistentzia-zerbitzua bultzatzea, arriskuan egon daitezke-eta. ■ Errentarik edo diru-sarrera nahikorik ez daukien edadekoei dirulaguntzak emotea. ■ Familia jagoleentzako laguntza-egitasmoak sortzea. ■ Egoitzetan leku gehiago eskeintzea, familia jagoleek aldi baterako atsedena hartzeko aukera euki dagien (asteburuetan, oporretan). ■ Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua bultzatzea, eta, horretarako, jarduerak ugaritzea eta dibersifikatea (janaria, ikuztegia..). ■ Menpetasuna daukien personentzako eremu soziosanitarioak koordinetea. ■ Menpetasunaren baremoa Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan egokitzea. | |
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, alkarteak, fundazioak, gizarte-erakundeak, Eusko Jaurlaritzak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak edadekoak atenditzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

9.25.2

Elbarriak gizarteratzen laguntzea

JARDUKETAK

- Elbarriei asistentzia sanitarioa eta farmazia-prestazinoa bermatzea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak estaldurarik eskeintzen ez deutesenean.
- Mobikortasunerako laguntzak eta garraio-gastuetarako konpentsazioak emotea elbarriei, beti be talde-garraibideak erabilteko zailtasun bereziak badaukiez.
- Bakarrik bizi edo egun osoan zehar ia-ia bakarrik dagozan elbarrientzako teleasistentzia-zerbitzua bultzatzea, arriskuan egon daitezkeez-eta.
- Lanbide-ibilbideak sustatzea, elbarriak laneratzeko eta emantzipetako (lanerako zentroak, babestutako enplegua...).
- Menpetasuna daukien personentzako eremu soziosanitarioak koordinetea.
- Errentarik edo diru-sarrera nahikorik ez daukien elbarriei dirulaguntzak emotea.
- Banan-banako dirulaguntzak emotea elbarriei, estimulazino goiztiarra garatzeko eta mobikortasuna zein komunikazinoa hobetzeko.
- Elbarrientzako aldi baterako egonaldiak antolatzea egoitza publikoetan, aldi baterako egoitza-zerbitzuetan eta iraunkorretan, eguneko zentroetan eta lanerako zentroetan.
- Egokitutako kirolak bultzatzea eta sortzea, eskolen, kirol-alkarteen eta beste bide batzuen bitartez.
- Irisgarritasun Plana garatzea Bizkaiko hondartzetan.
- Lagundutako bainurako egitasmoa garatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko hondartzetan.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. Ingurumen Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, alkarteak, fundazioak, gizarte-erakundeak, Eusko Jaurlaritzak, BBK-ko Gizarte Ekintza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak elbarriak atenditzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

9.25.3

Gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskuan dagozan pertsonen laguntza

JARDUKETAK

- Gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskuan dagozan pertsonen aldiroko laguntzak ematea, beti be euren oinarriko premiei aurre egiteko besteko diru-sarrerarik ez badaukie.
- Gizarteratzeko zentro honeetan behar beste leku eukitea: harrera-zentroak, tutoretzapeko etxebizitzak, beste tratamendu-unitate bateko etxebizitza osogarriak, egoitzak, egokitzeko etxebizitzak, eguneko zentroak, lanerako tailerrak eta gizarte-trebetasunak garatzeko tailerrak.
- Banan-banako dirulaguntzak ematea, gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskuan dagozan pertsonak gizarterapen-zentroan sartzeko, beharrezkoa izan ezker.
- Honako helburu honeek daukiezan jarduerak diruz laguntzea: gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskuan dagozan pertsonak atenditzea eta gizarteratzea; higiezinak eta beste ibilgetu batzuk erosteko inbersinoak egitea; eta lokalak handiagotzea, erabarritzea eta hornitzea.
- Lankidetzak-hitzarmenak sinatzea erakunde pribatuakaz, zerbitzuak eskeintzeko asmotan; esate baterako, gizarterapen-zentroak, drogazaleak atenditzeko egitasmoak eta arlo berezietako zein kulturako eta gizarteko aholkularitza eta orientazioa.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. |
| Lankidetzak | Udalak, alkarteak, fundazioak, gizarte-erakundeak, Eusko Jaurlaritza, gizarteratzeko enpresa pribatuak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskuan dagozan pertsonak gizarteratzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

9.25.4

Babes bako umeei oinarrizko premiei aurre egiteko moduko zerbitzuak eskeintzea

JARDUKETAK

- Ume Zerbitzuan atenditutako edadebakoekoen premiak aztertzea.
- Babes-baliabideak edadebakoekoen premietara egokitzea.
- Zerbitzu espezializatuen eta administrazinoko beste erakunde eta zerbitzu batzuen arteko koordinazioa hobetzea.
- Umeen eskubideak eta edadebakoak babesteko lege-garapena sustatzea.
- Umeen Plana eten barik ebaluetea.
- Sarea koordinetea (ikastetxea, osasuna...) eta esku hartzeko protokoloak egokitzea arrisku-egoerak jazoten diranean.
- Eskualdeko diziplina ugariko taldeak bultzatzea, tratu txarren ustezko egoerak balioesteko.
- Harrerako familien eta egoitza-zerbitzuen jarraipena egitea eta esku hartzeko prozesuak protokolarizetea.
- Egoitza ez beste sistema batzuk abian imintea, jatorrizko familiakaz bete-bete lan egin ostean.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Gizarte Ekintza Saila. |
| Lankidetzak | Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak babesik ez daukien edadebakoak atenditzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

| | |
|--|--|
| 9.26. lerro estrategikoa | KALIDADEKO LANA SORTZEKO BIZGARRIA |
| Helburu nagusia | Bidezko baldintzetan laneratzeko aukera eskeintzea |
| Helburu bereziak: | |
| 9.26.1 | Lan egonkorra sustatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Behin-behineko kontratuak barik, andrei kontratu mugabakoak eskeintzen deusezean enpresentzako laguntzak ezartea. ■ Beharginen kontratazino mugabakoagatiko zerga-bizgarria bultzatzea. | |
| Erantzukizuna | Lan eta Trebakuntza Saila. Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero bizgarriei esker sortutako lan-kontratu mugabakoen kopurua. |
| 9.26.2 | Gizarte-ekonomiako enpresak sortzea (lan-soziedade mugatuak eta soziedade kooperatiboak) |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Enpresok sortzeko laguntzak ezartea. | |
| Erantzukizuna | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Lankidetzak | Lan eta Trebakuntza Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Laguntzen bidez sortutako gizarte-ekonomiako enpresen hazkuntza garbia. |

9.26.3

Egoera txarrean dagozan taldeei laneratzeko aukera eskeintzea

JARDUKETAK

- Kontratetako konpromisopeko prestakuntza-ikastaroetan onartzeko orduan, honako honeei emotea lehentasuna: 45 urtetik gorakoak, andrak, elbarriak, 25 urtetik beherakoak, iraupen luzeko lanbakoak eta bazterketa-arriskuan dagozan personak.
- Zailtasunak daukiezan taldeak laneratzeagatiko zerga-sustapena garatzea.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Lan eta Trebakuntza Saila. Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | Gizarte Ekintza Saila, fundazioak eta gizarte-erakundeak, enpresarien alkarteak eta sindikatuak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Egoera txarrean egonda onuradunak izan diran personen kopurua urteko. |

Nortasun kulturala

Euskadik eta, bere barruan, Bizkaiak berezko balioak daukiez gizarte zein kultura arloan, eta jagon, babestu eta sustatu egin behar dira. Bestetik, lan-arlo honetan dagoz euskararen eta, batez be, bizkaieraren aldeko jarduketa guztiak. Era berean, herri-kirolak, artisautza eta euskal nazino kulturalaren gizarte-errealidadean jatorria daukan kulturako beste edozein adierazpen sustatuko doguz.

| | |
|--|---|
| 9.27. lerro estrategikoa | BIZKAIKO GIZARTE ETA KULTURA NORTASUNAREN FINKAPENA |
| Helburu nagusia | Bizkaiko bertako gizarte eta kultura arloko alderdiak sustatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 9.27.1 | Euskararen ezagutza eta erabilera handitzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Bizkaiko udalerriei eta eskualdeei buruzko ikerketa soziolinguistikoetan laguntzea. ■ Bizkaiera ikertzeko eta erabilteko laguntza emotea, ikerketarako erakundeen, hedapenerako entidadeen eta argitalpenen bitartez (Bizkaie...). ■ Bizkaiera estandarizetako laguntzak emotea. ■ Bizkaiko gizarte-sareak euskaraz egindako jarduerak bultzatzea. ■ Euskararen Etxea sendotzea, Bizkaian eta Euskadin euskararen erreferentea da-eta. ■ Udaletako eta mankomunidadeetako eragile soziolinguistikoak prestetako eta koordinetako ikastaroak eskeintzea. ■ Euskararen erabilera sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiko barruko funtzionamenduan bertan. ■ Euskararen erabilera sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta uritarren arteko hartu-emonetan. | |
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | Labayru Ikastegia. Sail eta udal guztiak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). Hizkuntza-eskakizuna daukien beharginen ehunekoaren gehikuntza. Euskaraz bideratutako kudeaketan eta galderen %. |

9.27.2

Bertoko kirolak zabaltzea, nortasun kulturalaren osogaietako bat dira-eta

JARDUKETAK

- Federazioen urteko planak diruz laguntzea.
- Kirolen Euskal Eskolea sortzea eta bultzatzea.
- Ikasleen arteko hedapen-kanpainak garatzea.
- Teknikarientzako prestakuntza-egitasmoak abian imintea.
- Herri-kiroletarako azpiegituren erabilera babestea.
- Herri-kirolen parkeak edo antzeko eremuak sortzea, teknologia barrien eta diseinuaren bidez.
- Diskriminazio positiboa sustatzea kirolari eta teknikarientzako dirulaguntzei buruzko dekretuetan.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | Kirol-federazioak, ikastetxeak, udalak, Eusko Jaurlaritza. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Bertoko kirol federazio-baimenen kopurua. |

| | |
|--|--|
| 9.27.3 | Euskal artisautza hedatzea eta sustatzea |
| JARDUKETAK <ul style="list-style-type: none"> ■ Gure lurraldean sortutako artisautza-adierazpenak sustatzea eta hedatzea. | |
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Aurrekontua. |
| 9.27.4 | Euskarazko jarduera kulturalak sustatzea |
| JARDUKETAK <ul style="list-style-type: none"> ■ Euskara komunikazio-hizkuntza moduan sustatzea gure lurraldean sortutako lan artistikoetan. | |
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Aurrekontua. |

Gazteen premien atentzinoa.

Bizkaiko Foru Aldundiak gazteen erabateko prestakuntzaren bideragarritasuna lortzeko baldintzak ezartea dauka helburu. Edozelan be, sektore honentzat etxebizitza eta lana dira kezka nagusiak, lan-merkaduaren egoera txarra danez eta higiezinaren prezioa garestia danez, oso gatxa dalako emantzipetea. Halanda ze, zentzun horretan jardun beharra dago, gazteen garapena jadesteko eta biztanleen zahartzapenari aurre egiteko.

| | |
|---|---|
| 9.28. lerro estrategikoa | GAZTEEN PREMIEN ATENTZINOA |
| Helburu nagusia | Gazteen erabateko eta bardintasunezko garapenerako toki-prozesuak bultzatzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 9.28.1 | Biztanleen premien araberako tokiko gazte-planak egiten laguntzea udalei |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Tokiko gazte-planak egiteko eta garatzeko dirulaguntzak ezartea. ■ Antzemandako premien arabera, gazteentzako ekipamenduak eregiteko dirulaguntzak ezartea, balio ugarikoak izan behar dirala eta udalerrri batek baino gehiagok erabili behar dauela kontuan hartuta. ■ Udaletako eta mankomunidadeetako teknikarientzako prestakuntza-egitasmoa garatzea. ■ Gazteentzat garrantzitsua dan informazioa sortzea eta koordinetea. | |
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | Udalak eta mankomunidadeak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urteko aldundiak eta udalek tokiko gazte-planen garapenerako erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |
| 9.28.2 | Gazteen premia nagusiei erantzuten deuseen planak garatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ II. Gazte Plana (2002-2005) betearazotea eta ebaluetea. ■ Aurrekoa amaitzean edo luzatzean, erakunde eta sail arteko beste plan bat egitea, garatzea eta betearazotea. Ostantzean, Gazteen Legea egitea. ■ Irratian eta telebistan hedatzeko kanpainak garatzea. | |
| Erantzukizuna | Kultura Saila. |
| Lankidetzak | Eusko Jaurlaritzak, aldundiko beste sail batzuk. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak planak garatzeko eta betearazoteko erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

9.28.3

Gazteei etxebizitzarako aukera eskeintzeko politikak sustatzea

JARDUKETAK

- Ohiko etxebizitzaren jaubetza eskuratzeko neurriak suspertzea.
- Etxebizitzen errentatzaile eta maizterrentzako zerga-bizgarriak ezartea.
- Herri Administrazio Sailak eta Bizkailur-ek udal-etxebizitzak bultzatzea.

| | |
|---------------|--|
| Erantzukizuna | Ogasun eta Finantza Saila. |
| Lankidetzak | Eusko Jaurlaritzak, Etxebide, udalak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Politika horreen babespean dagozan onuradunen kopurua. |

4.3.10 10. KONPROMISOA - Tokian tokikotik orokortasunera

Pakearen, justiziaren, bardintasunaren, garapen iraunkorraren eta eguraldiaren babesaren aldeko erantzukizun orokorra geure gain hartzeko konpromisoa hartu dogu.

Eguraldi-aldaketaren aurkako borroka.

Zenbait gas (batzuk erregai fosilen ondorioz sortzen dira) atmosferan metatzean sortutako negutegi-efektuak ez dau herrialdeen arteko mugarik ezagutzen. Badago zantzurik, planetareen beroketa globala gaur egungo eredu energetiko nagusiaren ondorioa izan daitekeala pentsetako.

Bizkaiko Foru Aldundiak garraioaren arloko ekimenak iminiko dauz abian, baina horrezaz gainera, CO₂ igorpenak gitxitu gura dauz, eraikinen eraginkortasun energetikoaren eta energia garbi baizen barriztagarrien erabileraren bitartez³⁵. Era berean, Nekazaritzan zelako eskumenak daukazan kontuan hartuta, basoen azalera handituko dau Bizkaian, esku hartzeko prozesua garatzeko orduan. Hori dala eta, azalera handiagoa eukiko dogu, eta negutegi-efektuko gasen hustubidea izango da.

³⁵ Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari negutegi-efektuko igorpenak gitxitzeko politika eta neurri bateratuei buruz bialdutako "Eguraldi-aldaketari buruzko Europako Egitasmorantz (EAEErantz)" jakinarazpena [COM (2000) 88 azkena, 2000ko martiaren 8koa]. III. eranskinean, eguraldi-aldaketari buruzko politika eta neurri bateratuei eta koordinatuei buruzko proposamenen zerrenda agertzen da.

| | |
|--|--|
| 10.29. Ierro estrategikoa | EGURALDI-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKEA |
| Helburu nagusia | Negutegi-efektuko gasak atmosferan egonkortzea. |
| Helburu bereziak: | |
| 10.29.1 | Negutegi-efektuko gasen igorpenak gitxitzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Eraikinen eraginkortasun energetikoa bultzatzea, udalerriaz sinatutako hitzarmenen bitartez. ■ Aldundiko ondare-eraikinak eregiteko eta artatzeko jarraibideak ezartzea, energia gehiago aurrezteko asmotan. ■ Energia barriztagarriak erabiltea aldundiko ondare-eraikinetan. ■ Bizikletea aukerako garraiobide moduan erabiltea. ■ Ibilgailu pribaduaren erabilera murrizteko eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko neurriak aztertzea eta garatzea. ■ Garraio Zuzendaritzako ibilgailuetan erregai ez hain kutsagarriak (gasa, biodiesela edo propulsiño hibridoak) erabilten dabean motorrak iminteko aukera aztertzea. ■ Isurketa ekiditen daberen hondakin-tratamenduak bultzatzea. | |
| Erantzukizuna | Herri Administrazio Saila. Urigintza eta Udal Harremanen Saila. Ingurumen Saila. Herri Lan eta Garraio Saila. |
| Lankidetzak | Udalak. Eusko Jaurlaritza. EEE. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Bizkaiko CO ₂ igorpenaren tasea. |

10.29.2

Negutegi-efektuko gasen hustubideak gehitzea

JARDUKETAK

- Bizkaiko Foru Aldundiko ondare-mendietan eta ekimena onartzen daberen udalerrietako mendietan basoak sartzea barriro, eta, horretarako, bertoko espezieak erabiltea, batez be.

| | |
|---------------|---|
| Erantzukizuna | Nekazaritza Saila. |
| Lankidetzak | Udalak. Ingurumen Saila. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Aldundiaren ondareko basoen eta baso-lursailen azalera. |

Hirugarren munduagaz solidarioak diran nazinoarteko lankidetzarako proiektuen sustapena.

Garapen iraunkor orokorra lortzeko baterako erantzukizuna onartuta eta gure ekintzek beste eskualde batzuetako ingurumenean eta garapen sozioekonomikoan zelako ondorio kaltegarriak eragiten dabezan jakinda, Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzarako moduak ezarri dauz garapen-bidean dagozan herrialdeetako toki-agintariakaz, eta dirulaguntzak emon deutsez nazinoarteko lankidetzarako jarduketak garatzen dabezan irabazi-asmo bako erakundeei³⁶.

Txirotasunari aurre egiteko lankidetzak ezinbestekoa da, giza garapen iraunkorra lortu gura badugu, pakea, garapena eta ingurumena alkarren menpekoak eta banaezinak diralako.

³⁶ Ikus apirilaren 4ko 42/2005 Foru Dekretua. Horren arabera, garapenerako lankidetzarako, hezkuntzarako eta sentsibilizazinarako proiektuak abian iminteko dirulaguntzen esleipena arautzen da 2005eko ekitaldiari begira.

| | |
|---|--|
| 10.30. Ierro estrategikoa | GARAPENERAKO NAZINOARTEKO LANKIDETZA |
| Helburu nagusia | Egoera txarrean bizi diran herrien garapena sustatzea |
| Helburu bereziak: | |
| 10.30.1 | ELGEko Garapenerako Laguntza Lantaldeko Dirulaguntzen Hartzaileen Zerrendan agertzen diran herrialdeakaz garatutako lankidetza-proiektuak finantzatzea |
| JARDUKETAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Garapen iraunkorrerako lankidetza-ekintzak finantzatzea, irabazi-asmo bako erakundeen bitartez. ■ Garapen iraunkorrerako sentsibilizazio edo hezkuntza arloko ekintzak finantzatzea, irabazi-asmo bako erakundeen bitartez. ■ Irabazi-asmo bako erakundeek laguntza humanitarioari begira unean-unean egindako proiektuak finantzatzea. ■ Hondamendi naturalak edo gatazka armatuak jazoten direnean, irabazi-asmo bako erakundeek garatutako larrialdi-proiektuak finantzatzea. | |
| Erantzukizuna | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa. |
| Lankidetza | Bizkaian dagozan irabazi-asmo bako erakundeak. |
| Epea | 2005-2010 |
| Adierazlea | Urtero aldundiak nazinoarteko lankidetzarako erabilitako aurrekontua (euro/urteko). |

5. Eginkizunak atontzeko proposamena

Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunaren arloan bere gain hartu dauzen erronka guztiei erantzun behar deutse. Alde horretatik, agiri honek apustu horreek jadesten laguntzeko euskarria eskeintzea dauka helburu.

Hona iritsita, funtsezkoa da erakundea zelan dagoan antolatuta hausnartzea. Horretarako, idatz-zati honetan jasotako edukiaren bidez, “aginte-mahaiaren” oinarriak ezarriko dira, foru-administrazioak berak Bizkairako garapen iraunkorrerako ereduaren sustapenerako zeharkako politikea abian iminteko, 2010. urtera arteko epeari begira.

Iraunkortasuna zeharkako eta diziplina ugariko gaia danez, ezinbestekoa da erantzukizun hori Ahaldun Nagusiaren Bulegoan lekuratzea.


Hona hemen bulego horren **zeregin nagusiak**:

- Bizkaia 21 Egitasmoa ezartea, bere jarraipena bermatzea eta proiektuak zein ekimenak koordinatzea eta bultzatzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiak Aalborg+10en hartutako konpromisoak kide ugariko era antolatu eta adostuan bideratzea.
- Iraunkortasunaren arloko erreferentzia politikoa eta teknikoa izatea Bizkaiko Foru Aldundiko bertako jarduketei begira.
- Garapen iraunkorraren arloan jarduteko aukerak daukiezan foru-zerbitzuen ikuspegi orokorra eta tokian tokiko premiei buruzko lurralde-ikuspegi orokorra bateratzea.
- Foru-sail guztien baterako erantzukizuna eta eten bako inplikazioa bermatzea foru-estrategia honen abio egokian.

Lehen esandakoa kontuan hartuta, Ahaldun Nagusiaren Bulegoari koordinazioan laguntzeko asmotan, beharrezkoa izango litzateke **iraunkortasuneko eragileak** eukitea. Sail bakotxean eragile bat egongo litzateke, eta koordinazioa zein sustapena eukiko leukez helburu. Hain zuzen be, Bulegoagaz hartu-emonetan iminteko solaskidea izango litzateke, eta, besteak beste, proiektuen jarraipenaz eta sustapenaz arduratuko litzateke (bere sailean bertan garatutako informazioa, prestakuntza eta hedapena).

Hurrengo diagraman dago ikusgai zelakoa izango litzatekean Ahaldun Nagusiaren Bulegoaren bidez garatutako informazio-fluxua:

- Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako Aalborg +10eko Konpromisoari buruzko gorabehera guztien barri emongo leuskio ahaldun nagusiari (ikuspegi tematikoa).
- Bizkaia 21 Egitasmorako ekarpenzat hartu dabezan ekimenei buruzko gorabehera guztien barri emongo leuskie foru-sail guztiei (arlokako ikuspegia).



Hona hemen Bulegoaren eginkizunak:

- Hausnarketarako eta eztabaidarako eremu iraunkorra sortzea, iraunkortasunaren printzipioak arlokako politiketan kontuan hartzeko.
- Urtean-urtean, lortutako emoitza balioestea: betetako helburuak, zailtasunak, zergatiak, urtenbideak. Era berean, foru-sailei laguntzea Bizkaia 21 Egitasmoa urtero ebaluetako prozeduran.
- Politikariak eta teknikariak iraunkortasunaren inguruan prestetako eta trebatzeko plana diseinetzea eta koordinetzea.
- Antolamenduko arazoak konpontzea eta iraunkortasunaren erispideak sailtako arlokako politiken eta proiektuen diseinuan ezarten laguntzea.
- Honako helburu honeek daukiezan lan-egitasmoak ezartea:
 - Bizkaiko Foru Aldundiko beharginak kontzientzietea eta sentsibilizetia.
 - Uritarrak kontzientzietea eta sentsibilizetia.
 - Ekimenak eta esperientziak trukitzea.
- Bizkairako iraunkortasunerako jarduketa eta proiektu barritzaileak proposatzea.
- Bizkaiko Foru Aldundian bertan iraunkortasunaren inguruan sortu daitekezan premiei eta galderei erantzutea.
- Bizkaiko Foru Aldunditik kanpo iraunkortasunaren inguruan sortu daitekezan kanpoko komunikazinoko premiei eta galderei erantzutea.

Amaitzeko, honako honeek izango litzatekez Iraunkortasuneko eragileen eginkizunak:

- Foru-saila Ahaldu Nagusiaren Bulegoagaz koordinetia, Aalborgeko konpromisoen ondorioz sortutako gaietan.
- Foru-sailakaz edo beste administrazio batzuetako beste sail batzuekaz proiektuak eta jarduketak koordinetia.
- Foru-sail bakoitxeko teknikariei helburu bereziak lortzen laguntzea, ezarritako proiektuen eta jarduketan bidez.
- Saileko foru-diputaduari egindako guztiaren barri emotea, holaxe eskatu ezkeru.

6. I. eranskina. Lerro estrategikoen eta helburuen laburpen-taulea.

| Aalborg+10 K. | Lerro estrategikoa | Helburu berezia | Saila |
|--|---|---|--|
| 1. Gobernu-erak | 1.1. Partaidetzarako eta barruko komunikazinarako ereduaren eta osogaien egituraketa | 1.1.1. Barruko partaidetzaren inguruko jarrera zehaztea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 1.1.2. Barruko komunikazinoaren inguruko jarrera zehaztea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 1.1.3. Barruko partaidetzarako adostutako eredia garatzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 1.1.4. Barruko komunikazinarako adostutako eredia garatzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | 1.2. Partaidetzarako eta kanpoko komunikazinarako ereduaren eta osogaien egituraketa | 1.2.1. Kanpoko partaidetzaren inguruko jarrera zehaztea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 1.2.2. Kanpoko komunikazinoaren inguruko jarrera zehaztea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| 1.3. Uritarren partaidetza, udal-erakundeen bitartez | 1.3.1. Laguntza logistikoa eta teknikoa emotea udalerrietan uritarrek parte hartzeko bultzatutako prozesuetan | Ahaldun Nagusiaren Bul. | |
| 2. Iraunkortasuneranzko kudeaketa | 2.4. Iraunkortasunerako politiken sustapena Bizkaian | 2.4.1. Aldundiko antolamendu administratiboa Aalborg+10en onartutako konpromisoetara egokitzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 2.4.2. Bizkaiko Foru Aldundian iraunkortasunerako politikak sustatzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 2.4.3. Foru-aldundiak onartutako planen eta egitasmoen iraunkortasuna ebaluetzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | | 2.4.4. Iraunkortasunerako politikak sustatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan | Ingurumena |
| | | 2.4.5. Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza sendotzea iraunkortasuneranzko ekimen europarretan | Ahaldun Nagusiaren Bul. |
| | 2.5. Garapen iraunkorrari buruzko prestakuntzaren sustapena | 2.5.1. Prestakuntza iraunkorra sustatzea Bizkaiko Foru Aldundian | Ahaldun Nagusiaren Bul. Herri Administrazioa |
| | | 2.5.2. Aukera-bardintasunari buruzko prestakuntza bultzatzea Bizkaiko Foru Aldundian | Herri Administrazioa |
| | | 2.5.3. Gizartearen ingurumen-arloko prestakuntza sustatzea | Lana eta Trebakuntza Barrikuntza eta Ekonomia S. Ingurumena |
| | | 2.5.4. Gizartearen prestakuntza sustatzea andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren arloan | Lana eta Trebakuntza Barrikuntza eta Ekonomia S. |
| | | 2.5.5. Prestakuntza sustatzea gizarteratzeko politiken arloan | Lana eta Trebakuntza Barrikuntza eta Ekonomia S. |
| | | 3. Danon ondasun naturalak | 3.6. Uren politikearen garapena, uraren esparru-zuzentaraua beteten laguntzeko |
| 3.6.2. Uraren kontsumo iraunkorra bultzatzea | Ingurumena | | |
| 3.6.3. Uriolen ondorioei aurre egitea | Ingurumena Urigintza eta Udal Har. | | |
| 3.6.4. Ur-zerbitzuaren homogeneizazioa sustatzea | Ingurumena | | |
| 3.6.5. Tarifa egokien ezarpena sustatzea | Urigintza eta Udal Har. | | |
| 3.6.6. Ur kontinentalen kalidade ekologikoa hobetzea | Ingurumena | | |

| Aalborg+10 K. | Lerro estrategikoa | Helburu berezia | Saila |
|---|---|--|--|
| | 3.7. Bizkaiko basoak kudeatzeko politika iraunkorraren garapena | 3.7.1. Basoen kudeaketa iraunkorraren ziurtagiria sustatzea Bizkaian | Nekazaritza |
| | 3.8. Paisaiaren babesa | 3.8.1. Errepideek paisaian sortutako ikusizko inpaktua gitxitzea | Herri Lanak eta Garraioak |
| | 3.9. Planen eta egitasmoen ingurumen-ebaluazio estrategikoa | 3.9.1. Urigintzako plangintzarako tresnek ingurumenean daukiezan eraginak ebaluetea | Ingurumena |
| 4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak | 4.10. Zerga-eraldaketa ekologikoa | 4.10.1. Zerga-zama barriro banatzeko neurriak aztertzea | Ogasuna eta Finantzak |
| | 4.11. Baliabideen zentzuzko erabilera eraginkorraren sustapena | 4.11.1. Ingurumena Kudeatzeko Sistemak (IKSak) ezartzea eta ziurtatzea aldundiko sailetan eta soziedade publikoetan | Ingurumena Ogasuna eta Finantzak |
| | | 4.11.2. Ingurumen-arloko erispideak zehaztea eta onartzea, ondasunen, lanen eta zerbitzuen kontratazino zentralizaturako orrietan kontuan hartu ahal izateko | Herri Administrazioa |
| | | 4.11.3. Ingurumen-arloko erispideak zehaztea eta onartzea, ondasunen, lanen eta zerbitzuen sailkako kontratazinarako orrietan kontuan hartu ahal izateko | Sail guztiak |
| | | 4.11.4. Ingurumen-arloko erispideak kontuan hartuta, ondasunak, lanak eta zerbitzuak kontratetea | Herri Administrazioa Sail guztiak |
| | | 4.11.5. Baliabideen kontsumo arduratsua bultzatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresen artean | Barrikuntza eta Ekonomia S. Ogasuna eta Finantzak |
| | | 4.11.6. Kulturako ekipamenduak eta zerbitzuak mankomunidadean bateratzea | Kultura |
| | | 4.11.7. Euren lanetan ingurumena errespetetan daben jokabideak erakusteko eskatzea herri-lanetako kontratei | Herri Lanak eta Garraioak |
| | 4.12. Administrazinarako irisgarritasuna, zerbitzu elektronikoen bitartez | 4.12.1. Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailean Internet bidez aurkeztutako laguntza-eskabideen kopurua handitzea | Barrikuntza eta Ekonomia S. Herri Administrazioa |
| | | 4.12.2. Telefono eta telematika bidezko izapideak sustatzea zergadunek Ogasun eta Finantza Sailagaz daukien hartu-emonetan | Ogasuna eta Finantzak Herri Administrazioa |
| | 4.13. Uri-hondakinak kudeatzeko sistema egokien ezarpena | 4.13.1. Uri-hondakinen sorrera jatorrian bertan gitxitzea | Ingurumena |
| | | 4.13.2. Bizkaiko UHen balorizazioa areagotzea | Ingurumena |
| | | 4.13.3. UHen berrerrabilpena sustatzea | Ingurumena |
| | 4.14. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen balorizazio handiagoa | 4.14.1. Abeltzaintzako hondakin organikoen zikloa behar dan moduan kudeatzea | Nekazaritza |
| 4.14.2. Nekazaritzako hondakinen zikloaren kudeaketa hobetzea | | Nekazaritza | |
| 5. Urigintzako plangintza eta diseinua | 5.15. Urigintzako plangintza iraunkorra | 5.15.1. LZPetan iraunkortasunaren erispideak kontuan hartzea | Urigintza eta Udal Har. |
| | | 5.15.2. LZPetan jasotako iraunkortasunaren erispideak urigintzako plangintzan kontuan hartzen laguntzea udalei | Urigintza eta Udal Har. |
| 6. Mobikortasun hobe eta zirkulazioaren murrizketa | 6.16. Mobikortasun iraunkorraren sustapena | 6.16.1. Bizikletearen erabilera bultzatzea aukerako garraio bide moduan | Herri Lanak eta Garraioak |
| | | 6.16.2. Metropolialdeetan garraio pribaduaren erabilera zigortzea | Herri Lanak eta Garraioak Ingurumena Urigintza eta Udal Har. |
| | | 6.16.3. Garraio publikoaren erabilera handitzea | Herri Lanak eta Garraioak |
| | | 6.16.4. Mobikortasun iraunkorra sustatzea urigintzako plangintzaren bitartez | Herri Lanak eta Garraioak |

| Aalborg+10 K. | Lerro estrategikoa | Helburu berezia | Saila |
|---|---|--|--|
| 7. Osasunerako toki-ekintza | 7.17. Biztanleen bizi-kalidatearen babesa eta hobekuntza zaratearen aurrean | 7.17.1. Errepide bidezko zirkulazinoak sortutako soinu-maila handien eraginpean dagozan biztanleen kopurua murriztea | Herri Lanak eta Garraioak |
| | | 7.17.2. Udalei zaratearen aurka egiten laguntzea | Ingurumena |
| | 7.18. Suteak amatetako zerbitzuen koordinazioa industriakaz | 7.18.1. Larrialdiren bat jazoteko arriskua sektore kimikoko zer enpresatan dagoan jakitea | Herri Administrazioa |
| | | 7.18.2. Beste sektore batzuetan larrialdiren bat jazoteko arriskuan dagozan enpresetako instalazinoak zelakoak diran jakitea | Herri Administrazioa |
| | 7.19. Edadekoen ondoizatearen sustapena | 7.19.1. Edadekoak ingurumenaren babesaren eta garapen iraunkorraren inguruan kontzientzietan laguntzea | Gizarte Ekintza Ingurumena |
| | | 7.19.2. Edadekoen inplikazioa eta erabateko partaidetza sustatzea ingurumenaren babesagaz zerikusia daukien jardueretan | Gizarte Ekintza Ingurumena |
| | 7.20. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenen kalidade sanitarioaren eta nekazaritzako elikagaien kalidatearen hobekuntza | 7.20.1. Landare-jatorriko produktuen %99n, plagizida-hondakinen mailak arauzko mailak (ARM) baino txikiagoak izatea | Nekazaritza |
| | | 7.20.2. Animalia-jatorriko produktuen %99,8n, albaitaritzako tratamendueko substantzien hondakinen mailak arauzko mailak (ARM) baino txikiagoak izatea | Nekazaritza |
| | | 7.20.3. Animalia-jatorriko produktuen %100en, mikrobioen aurkakoen mailak arauzko mailak (ARM) baino txikiagoak izatea | Nekazaritza |
| | 8. Tokian tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra | 8.21. Landa-garapen iraunkorraren sustapena | 8.21.1. Nekazaritzako ustiatzearen lehiakortasuna hobetzea |
| 8.21.2. Landa-biztanleen kopuruari eusteko beharrezko baldintzak garatzea | | | Nekazaritza |
| 8.21.3. Landa-eremuetako ingurumena, paisaia eta ondare naturala jagotea eta hobetzea | | | Nekazaritza |
| 8.22. Bizkaiko Lurralde Historikoko ikerketa-azpiegituren sustapena | | 8.22.1. Barrikuntzako eragileei laguntzea ingurumeneko teknologien arloan | Barrikuntza eta Ekonomia S |
| | | 8.22.2. Teknologia iraunkorrak ekoizten dabean enpresak sortzea | Barrikuntza eta Ekonomia S |
| 8.23. Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresen gizarte-erantzukizunaren sustapena | | 8.23.1. Erakundeen Gizarte Erantzukizuna bultzatzeko egitasmoak garatzea | Barrikuntza eta Ekonomia S Ahaldun Nagusiaren Bul. |

| Aalborg+10 K. | Lerro estrategikoa | Helburu berezia | Saila |
|---|---|--|--|
| 9. Bardintasuna eta justizia soziala | 9.24. Bizkaiko genero-politika | 9.24.1. Gizartea sentsibilizatea eta andre aukera-bardintasunaren arloan bizi daberen egoera zelakoa dan jakitea | Ahaldun Nagusiaren Bul. Gizarte Ekintza |
| | | 9.24.2. Gizarte-eragileen ekintza sustatzea andren eta gizonen arteko aukera-bardintasunaren alde | Ahaldun Nagusiaren Bulegoa |
| | | 9.24.3. Andrak aukera-bardintasunean laneratzeko prozesua sustatzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. Lana eta Trebakuntza Barrikuntza eta Ekonomia S. Nekazaritza |
| | | 9.24.4. Andren osasuna sustatzea | Gizarte Ekintza |
| | | 9.24.5. Andren agerpena sustatzea gizarte eta kultura arloko jardueretan | Kultura |
| | 9.25. Gizartean egoera txarragoan dagozan taldeentzako atentzinoa | 9.25.1. Menpetasuna daukien edadekoei emondako asistentzia hobetzea | Gizarte Ekintza |
| | | 9.25.2. Elbarriak gizarteratzen laguntzea | Gizarte Ekintza |
| | | 9.25.3. Gizarte-bazterketan bizi edo horretarako arriskuan dagozan pertsonen laguntzea | Gizarte Ekintza |
| | | 9.25.4. Babes bako umeei oinarrizko premiei aurre egiteko moduko zerbitzuak eskeintzea | Gizarte Ekintza |
| | 9.26. Kalidadeko lana sortzeko bizgarria | 9.26.1. Lan egonkorra sustatzea | Lana eta Trebakuntza Ogasuna eta Finantzak |
| | | 9.26.2. Gizarte-ekonomiako enpresak sortzea | Barrikuntza eta Ekonomia S. |
| | | 9.26.3. Egoera txarrean dagozan taldeei laneratzeko aukera eskeintzea | Lana eta Trebakuntza Ogasuna eta Finantzak |
| | 9.27. Bizkaiko Lurralde Historikoko nortasun kulturalaren finkapena | 9.27.1. Euskararen ezagutza eta erabilera handitzea | Kultura |
| | | 9.27.2. Bertoko kirolak zabaltzea, nortasun kulturalaren osogaietako bat dira-eta | Kultura |
| | | 9.27.3. Euskal artisautza hedatzea eta sustatzea | Nekazaritza |
| | | 9.27.4. Euskarazko jarduera kulturalak sustatzea | Kultura |
| | 9.28. Gazteen premien atentzinoa | 9.28.1. Tokiko gazte-planak egiten laguntzea udalei | Kultura |
| | | 9.28.2. Gazteen premia nagusiei erantzuten deuten planak garatzea | Kultura |
| | | 9.28.3. Gazteei etxebizitzarako aukera bermatzeko politikak sustatzea | Ogasuna eta Finantzak |
| | 10. Tokian tokikotik orokortasunera | 10.29. Eguraldi-aldaketaren aurkako borroka | 10.29.1. Negutegi-efektuko gasen igorpenak gitxitzea |
| 10.29.2. Negutegi-efektuko gasen hustubideak gehitzea | | | Nekazaritza |
| 10.30. Garapenerako nazinoarteko lankidetzak | | 10.30.1. ELGEko Garapenerako Laguntza Lantaldeko Dirulaguntzen Hartzaileen Zerrendan agertzen diran herrialdeakaz garatutako lankidetzak-proiektuak finantzatzea | Ahaldun Nagusiaren Bul. |